
EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

I Zenbaia

1987

AURKIBIDEA

Orr.

Agurra	1
Euskerazaintza	2-4
Euskeraren ebazkizuna. A. Urrestarazu	5-6
Euskerazko izenak. B. Latiegi	7-15
Lauaxeta ren olerkien gizadasuna. L. Arostegi	16-18
Barrutiaren Gabonetako Ikuskizuna. L. Akesolo	19-25
Ondarroa - ko toponimia. A. Zubikarai	26-28
Euskera lantzen. A. Zatarain	29-31
Euskera Bizkaian. M. Olazar	32-34
Denbora berrietako eliza. A. Arrinda	35-40
"Betiko" to "betirakori" buruz zeozer. I. Zubiri	41
Liburugintza. S. Onaindia	42-43
Izan du ala Edun du? A. Zatarain	44-45
Sariketak	46-47
Etxaniz"tar Nemesio. A.Z	48

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

EUSKERAZAINTZA.

Legerako Gordetza (Depósito Legal): BI-1928-87.

Konponketa: Flash Composition. Bilbo.

GURE AGUR

rteak dira Euskerazaintza, Euskeraren erri akademia, sortu zala.

Ulteroko batzarrak, urteroko berezi batzuk eta abar, etxeke antzera egiten dira. Omenaldi batzuk ere egin dira gure erakundearen izenean: Jon Onatibia zanari Oiartzun "en, Elbire Zipitria"ri Donostia'n, Jose Zinkunegi 'ri Errexil "en, Paben Loidi 'ri Igeldo"n, Esteban Urkiaga "Lauaxeta "ri Mungia'n eta egunotan Nemesio Etxaniz'eri Azkoiti 'n. Geroago On Manuel Lekuona'ri Oiartzun"en, eta abar. Euskeraren aldeko asteak ospatu izan ditugu, jardunaldi erabidez edota itzaldi bidez: Ala Loiola'n, Ondarroa, Markina eta abar.

Euskerazaintzaren oinarria eta izatea erriagan dagolako, ordua zan gure agurra eskeini- niaz, gure ezaupidea argi eta zuzenago agertzeko.

Onetan dator aldizkari au.

Bein da betiko esan bear dogu ez gabiltzala inoren aurka, ez dogula jokutzen taldekeriz edo ta norberekeriz. Ez gara ume olgetan jolasteko.

Euskeraren aide gabiltz. Gure erriaren izkuntza egoera larrian eta jokoan ikusten dan une onetan, bidezko da aleginik bizienak egitea izkuntza orren iraupen eta bizitzaren aide.

Ez gara politiko, ez eta alderdi bateri lotu eta menpetuak. Euskerazaintzaren jo-muga bakarra euskera da. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Naparrak batzen gera bertan oraingo. Eta Ipartarrekin artu-emonak aztu gabe, gure muga euskeraren muga dagolako.

Oraingo gure kezkarik biziena euskeraren egoera da, eta bereziki bizkaierarena, kontu- ratzen garealako euskera araututean, euskeraren sail andi bat bastertu, alboratu eta —esango genduke batzutan konturatu gabe eta bestetan zitalkeriz— neurtu izan dan erasoaldia egi- ten data bizkaieraren lepoz eta errialde aretako izkuntza jatorraren kaltez. Ala egunkarietan, Jaurlaritza berberaren erakundetan, agerkaietan, Telebista lako erakusbideetan eta abar. Askotan Bizkai 'ko diru laguntzak ere tartean erabilita.

Eta izkuntza, biziko ba da, errikoa izan bear da; jatorra, berezkoa, bizia, ez goitik agindua eta ezarria, oinarritik eta sustraitik loratua baino.

Azkue berberak, euskeraren maisu argitzat daukagunak autortua da euskeraren arasoari buruz: "Gauza batzuetan erriak beraren maisuak baino geiago daki". ("Euskera, IX, urtea, II zenbakia).

Giro ori ezin onartu Euskerazaintzak eta bestetik salatu bear, euskera biziaren onean.

Urrats bat geiago emoten gatoz: gure aldizkaria argitaratzen, gure izate, elburu eta asmoak erriraino eldu daitezzen aleginez.

Au dala to euskeraren aldeko erakundeei eta erriari bereziki gure agurra luzatuz batera, gure laguntza eskintzen gatoz euskeraren mesedean, danon artean erri euskera arnas berri- tuz, bizi luze eta iraunkor bat irarteko zoria lortzeko kezka eta ametsetan.

EUSKERAZAINTZA

(EUSKERAREN ERRI-AKADEMIA)

Lenengo Agerpena

—Kezka baten beroan erne da Euskeraren Erri-Akademia: Euskerak gaur emen bizi duan egoera larriak sortu du. EUSKERAZAINTZA, euskeraren bizi-eskubideak zaintzeko eratu da.

"Euskeraren Erri-Akademia" dan ezker, erri-euskeraren serbitzu ta laguntza zuzenean jardungo da. Erri-Euskeratik joko du ta erriarekin ibilliko da gaurko bizi-unerako bear duan Euskera osotuz.

"EUSKERAZAINTZA" dan ezker, Euskera aldeztera dator, gaur bizirik dagoan Euskera babestera, gaur bizirik dauden euskalkiak beren arnas larrian jasotzera dator.

Erri-Akademia ez dator euskalkiekin museo bat antolatuzera, ez dator bizirik dagoan euskera jaso ta kutxa zaarretan gordetzera.

—Bizitik biziagora ibilli nai du, Euskera bizitik Euskera biziago ta indartsuagora.

—Bizi danak ba-ditu bere legeak eta Euskerak ere bai. Euskerak errain bizi bear du gaur eta errian biziko da biar, Erriaren bizi beraren esanera.

—EUSKERAZAINTZA, lege oien agindura jartzen da asiera-asieratik.

Bizi-lege oietatik letozke Euskeraren oparoa ta barne-batasuna. Barne-biziak, bizi beteak, bateratu dezake Euskera ta ez azal-zuriketak.

—EUSKERAZAINTZA, Euskera bateratuaren aldekoa da ezpairik gabe, eta aalegin guztiak egiñez saiatuko da eginkizun ortan, baiña erri-euskeraren buztarritik bere burua askatu gabe.

—Euskalkiak, Euskeraren bizi oparoak bakarrik bateratuko dituan ezker, Euskeraren bizigarriako daitekean lana, ontzat artuko du EUSKERAZAINTZA'k.

—EUSKERAZAINTZA ez dator izen berri ta sigla batzuen billa... Baiña izen baten billa jo bear izan du, eta erakunde bat antolatu, beste zenbait erakunderen aukeran, lana egingo ba'du.

—Euskeraren Erri-Akademia ez dator iñoren aurka, erri-euskeraren alde dabil bete-betean eta bere indar guztiz.

Eibar'en 1979 ' go urtarrillaren 27'an

Legeztatzea eta Erri zuduzkotasunaren Aldarrikapena ezagutzea.
Madrid'eko Barne-Zaintza Ministeritzak. 1980-XII-10.

MINISTERIO DEL INTERIOR

4373 Resolución de 10 de diciembre de 1980, de la Dirección General de Política Interior, por la que se hace pública la declaración como asociación de utilidad pública de "Euskerazaintza Euskeraren Erri Akademia", de Tolosa (Guipúzcoa), y de sus Estatutos.

La Asociación denominada "Euskerazaintza-Euskera" ren Erri Akademia" (Academia Popular del Euskera), de Tolosa (Gulpúzcoa), legalmente constituida e inscrita en el Regis-

tro Nacional de Asociaciones con el número de orden 32.921, ha solicitado de esta Dirección General la publicación en el "Boletín Oficial del Estado", tanto del acuerdo del Consejo de Ministros por el que se la declara asociación de utilidad pública, como de sus Estatutos.

Y feniendo en cuenta que la citada Asociación tiene como fines la conservación,

ii
colaborando con el pueblo en la consecución del euskera unificado, y que, en cumplimiento de estos fines, viene realizando numerosas actividades en favor de la lengua y cultura del País Vasco.

Esta Dirección General de Política Interior ha resuelto hacer público, para general conocimiento, que por acuerdo adoptado por el Consejo de Ministros en su reunión del día 3 de octubre de 1980, ha sido declarada de utilidad pública la Asociación denominada "Euskerazaintza-Euskera 'ren Erri Akademia", de Tolosa (Gulpí zcoa), que se rige por los Estatutos que a continuación se insertan.

Madrid, 10 de diciembre de 1980.—El Director General, Juan Gómez Arjona.

ESTATUTOS DE "EUSKERAZAINTZA"

Artículo 1.º "Euskerazaintza", Academia Popular del Euskera, que se registrá por estos Estatutos, se acoge al régimen jurídico de la vigente Ley de Asociaciones de 24 de diciembre de 1964.

Ari. 2.º Su objetivo es la conservación, vitalización, investigación y fomento del euskera en sus modalidades fundamentales históricas, colaborando con el pueblo en la consecución del euskera unificado.

Para ello:

A) Tratará de hacer patente ante todo el pueblo vasco, el imperativo moral de que todo el que habita en Euskadi, debe conocer y hablar el euskera.

B) Fomentara en cada región el conocimiento del propio euskera, propiciando en cada uno de ellos el aprendizaje del euskera de las otras regiones, como camino mas idóneo para la auténtica unificación del euskera.

C) Se esforzará en la alfabetización de la gran masa del pueblo euskaldun y ofrecerá al mismo tiempo a todos los habitantes de Euskadi, los medios oportunos al acceso del conocimiento de nuestra lengua.

D) Convencido de que es el pueblo euskaldun el auténtico maestro yguardián de su propio idioma, pedirá su colaboración para la recopilación de frases y dichos de gran significado lingüístico en función de la esencia del euskera.

E) Luchara contra la invasión de innecesarias e inoportunas palabras extranjeros y cuidará con todo esmero de la pureza de sintaxis y casticismo de la lengua.

F) Colaborará en la organización de cursos de enseñanza de euskera y en la formación de Profesores titulados de euskera. Expedirá, previo examen, los correspondientes títulos y certificaciones. En esta labor de formación utilizará al máximo, además de los medios tradicionales, los modernos medios de comunicación social.

G) Estará en estrecho contacto con los especialistas para la producción de libros de texto para la enseñanza a todos los niveles.

(Ondoren, 30 ataletan, erakundearen barruko araubidea agertzen da).

Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailleko Agindua (1984-V-21) EUSKERAZAINTZA Kultur Elkartea onartu eta Kultur Alorreko Iraaskundeen eta Antzerako Erakundeen Erroldean sartuz.

KULTURA-SAILA

1106

1984.eko maiatzaren 21 eko 3ko Agindua "EUSKERAZAINTZA" izeneko Norbanako-Jabetzapeko Kultura-Elkartea onartu eta Kultura alorreko Iraskundeen eta Antzerako Erakundeen Erroldean sartuz.

"Euskerazaintza" izeneko Kultura-Erakundearen onarpen eta Kultura alorreko Iraskundeen edo Antzerako Erakundeen erroaldean sartzearikiko zehaztapidetza ikusi ondoren;

Hau honela: Jesus Gaztañaga Jaunak, 1964.eko abenduaren 24eko Elkartearikiko Legearen eta 1.440/1965 Dekretoaren arauera, egoitza donostiako Getaria kaleko 21ean duen kultura zabaltzeko eta suskritzeko aipatutako Kultura-Erakundea sortzeko Herrizaingo-Ministeritzan 32.921 legeztapen-zenbakiaz errolderatutako Iraspén-Estatutoe-kin batera erroaldean sartzeko eskea aurkeztu duela; Estatuto hauei darienez honako hauek direla helburuak: Euskera batu bat lortzeko asmotan, euskera bere kondaira-modu oinarritz-koetan gorde, indartu, ikertu eta suztatzea;

Hau honela: Baltzu hori irauarazteko, bazkide-sariak, emaitzak eta Elkartek bere irabazte-xederik gabeko helburuak egiteratuz lor ditzaken sarrerak erabiliko direla;

Hau honela: Legeztatutako eskean eta sortzeko eskribau aglrlan, Erakundea arteztea eta arduratzea Bazkideen Orotariko Batzarrari eta Batzar-Buruari dagokiela eta bai, Batzar-Burua osatzeko izendatutakoek emandako kargu-onarpena ere erasota gelditzen dela: Lehendakaria: Lino Akesolo Jauna; Lehendakariordea: Martin Olazar Jauna; Idazkaria: Jesus Gaztañaga Jauna; Idazkariordea: Jose Agustin Orbegozo; Diruzaina: Juan Ramon Bilbao eta Liburutegi-Arduraduna.

Honako hauek ikusirik: Autonomia-Elkartear aginte eta zerbitzuak eskuratzeari buruzko irailaren 26ko 3.069/1980 Errege-Dekreto, uztailaren 21 eko 2.930/1972 Dekreto eta bere bitartez Kultura-alorreko Norbanako-Jabetzapeko Iraskundeen eta Antzeko Erakundeen Erroldea sortarazten deneko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura-Sailaren 1983.eko urriaren 21 eko Agindua eta beste erabaki baterakorrak;

Zera kontutan izanik: Zehaztapidetza hau horretarako galtutako pertsonen suztatu dutela eta horri, Kultura-alorreko Elkartek erroldaratzeari buruzko 2.930/1972 Dekretoko 61. Ata-lean aipatutako eskakizunak betez, oinarritzkotzat jotzen diren xehetasun eta agiri guztiak erantsi zaizkiola.

Sail honek, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.—Euskerazaintza delakoa Kultura-alorreko Elkarte gisa onartu eta errolderatzea.

Bigarrena. — Horren ordezkotza eta eraentza bere osakera lehen zehaztu deneko Baltzar-Buruari ematea.

Hirugarrena.-1980.eko abenduaren **10eko** Ministrari-Batzordearen Erabakiz (1981.eko B.O.E.-ren 45.Alea) Elkarte honi eman zitzaion Herri-Zuduzkotasunaren Aldarrikapena onartzea, Aldarrikapen horri darizkion eskubideekin, 1.440/ 1965 Dekretoak bere hirugarren atalean dioenaren modura, eta horren indarrez "Herri-Zuduzko Elkarte"-ren titulua erabilitzeko eskubidea duelarik, halaber Legeak ematen dizkion zergarik eza eta beste abantailak ere.

Gasteiz, 1984.eko maiatzak 21.

Kultura-Sailburua,
JOSEBA ARREGI ARAMBURU.

EUZKERAREN EBAZKIZUNA

Euzkeraren ebazkizuna aurkezteko, lehengo agertzen zaiguna guztiz auenga 'ia dala esan bea': Euzkaltzaleak guztiz erdibiturik ikustea. Erdibitzea beti dugu kaltega 'la, baña gaurko ontan euzkerarentzat kaltega 'iago, Araudi 'aren esker ideki zaigun bidea benetan ustiatzeko oztopo oso aundia dalako.

Begira dezagun, alik eta labu 'enik, zeatzez, erdibitze ori nolakoa dan, eta zertan dagoen ortatik sortzen zaigun euzkerarentzako kaltea.

Bertatik irteten zaizkigu guziok dazazkigun eta gaur ja 'aitzen diran bi bide ezberdiñak: "Euzkera e 'ikoia" ta "Euskara batua"; zara lenengoa, beria biga 'ena. Euskaltzaindia bere lendabiziko be 'ogetama ^ urfeetan barna lenengoaren jokeraz ibili da; guziok ongi dakigunez, Azkue ta Garitaonaindia 'k esondatu zutena, eta euskaltzale geyenek, batasun aundian, onartu ta ja 'aitu zutena. Gero, Euskaltzaindiak berak, beste batzuek sortutako bigaren bidea beretzat onartu zuen, lenengoa utzita, Aldatze ori ezta izan euzkaltzale askoren gogokoa, ta o 'ela sortu zaigu aipatutako erdibitzea, geron aldetik ere aldatze ori onartu ezin dezakegulari k; ta ondorioz, lengo bidea ja 'aitzeko bea 'ean beste erakunde beria eratzeko beartuak izan gera; "Euskerazaintza" da bere izena, ta bere elburu nagusia Euskaltzaindi 'ak utzitako lenengo bidea onartu ta zabaltzekoa dugu.

O 'engatik ezinbestekoa zaigu "Batua" ren aurka jokatzea, gure izkuntza ta gure euzkalbiziarentzat oso kaltegarria dalakoan gagozelako. Ezta naikoa, noski, auzia orela baka 'ik age 'eraztea, ta bea 'ezkoa zaigu, geron ustez, bide ortan dagozen oke 'ak zeintzuk diran nabari-eraztea, bai ta zergatik ikusten ditugun o 'ela. Lenengoa H izkiaren erabiltzea da, ta ezin esan diteke ga 'antzi aundikoa dana; biga 'ena, egitan ga 'antziduna dana, euzkeran bertan amaika erderakada sartzea dugu.

H izkia gure E 'i ko ipa 'aldean erabii da, orain ere erabiltzen da; ta mendeetan barna Bidasoa 'tik egoaldean euzkera para-pa 'a ta ondo erabili da, izki ori zegoela ere gogoratu gabe; beraz argi ikusten da, o 'engatik, iñola ere bea 'a etzala. Ta ipa 'aldean ere, aspaldi ontan, berez asi ziran ango euzkaldunak uzten, berak ere bea ' ori etzegoenik orela adieraztean. Beraz, H ori egoaldean sartzea, bea 'ik gabe, oztopoa baño besterik ezta argi agertzen zaigu.

Biga 'en oke 'a, bai, oso kaltega 'ia bezela agertzen da. Ikus dezagun zergatik: Mende ta mendeetan barna, naiz España naiz Prantzia 'ren aldetik, guda izuga 'ia egin zaio euzkeraz. Guziok dakigunez, late 'i aundi bi oiek inda 'ez menperatu gaituzte, ta gure menperatze ori azkeneraño eramateko xedeaz, beren irakasleak bialdu dizkigute, azken bi mendeetan batez ere beren lan deitoraga 'ia gure ikastoletan bete dutelarik. Ikas-toki oietan egindako lana auxe izan dala: auf euzkaldunak erdaldunak biurtzea, ta ortarako euzkera gebendu ta erdera ona 'eraztean. Erdera izan dute, ortarako, bide egokiena, beste oberik aurkitzea eziña zalako; ta au 'ean buruetatik euzkal-itzak kendu ta, beren ordeaz, erderazkoak sartu. Orixe izan da ikastola guzietan erabiitako bidea, gero, inda 'ez ere ja 'i zaigun biziaren arlo guztietan be, bide ori tinkotu ta ja 'aitzeko beara gero ta aundiago egitean.

O 'ela, guzlok gureganatu ditugun ezagupen eta ikasketak, erderaz egiteko bearturik izan gera oso, ta ondorioz, erderarekin batera erdal-gogoa ere barneraño sartu zaigu, noraño ganera!; gaurko ontan, guziok ezpatera, geyen-geyenak bederen bai, erderaz erartzen ditugu gure oldozpenak; ba-dakigu, geyen oiek be, euzkeraz oldoztu dezaketela, baña ortarako, au 'etik beren burua erazi bea ' dute, ta ala ere eziña izango zaie gai batzuetarako orela yar-dutea. Baña erabakia au 'ez artzen ezpada, gai a 'unta batzuetan izanezik, erderaz oldozten dute beti. Ez dugu uste egia dan gure zoritxa ' aundi ori, bea ^ dan bezela, iñoiz nabari-arazi danik; baña ezin ukatzeko egia dugu ori, ta berak erakusten digu, argi, noraño gagozen men-

peraturik, eta ain zuzen ortan dago gure menperatasun aundiarena, auxe esan dezakegularik: naiz eta e[^]iketa aldetik gure E[^]i[^]arentzat azkatasun aundiarena lortu, euzkalduna jopu ja[^]aituko da, gai guztietarako, berez, euzkeraz oldoztu arte.

Orlxe agertzen da, garbi, gure artean erderak dagien lana nolakoa dan. Ori ikusi gabe edo, gaurko "euskara batua" lengo erdal-irakasleek zegiten lan deitoraga[^]ia be[^]itzen eta aunditzen ari da, azpegi oso nabariga[^]i ontaz gañera: lengo irakasleek auf euzkaldunak, erderaren bidez, erderatzen zituzten; gaurko "euskara batua"^k euzkera bera da erderatzen duena, ainbat eta ainbat erderakada sartzean. Erderakadak erabiltze o[^]ek, gañera, eztitu baka[^]ik erderakadak sartzen, berak sartzeko, geyenetan, euzkal-itz jato[^]akere zokoratzen ditu. Eman dezagun, ori egiztatzeko, adibide bat baka[^]ik: gaur alde guztietan ikusten da erderazko "duda" itza erabiltzen dala: "dudarik ez", "eztago dudarik", "ezin dudan izan" eta aba[^]; eta itz o[^]ek daman asmoa adierazteko iru euzkal-itz jato[^] auek beñepein aipa ditzakegu: "zalantza", "ezpai" ta "enura"; beraz, erdal-itz ori erabiltzen danean, beste iru euzkal-itz jato[^]ak bazterturik geratzen dira. Esan al diteke ori euzkeraren aldeko lana dala?...

Baña ez tira itz soCak joko ortan dantzatzen ari diranak; euzkal-joskera ere sa[^]i aztutzen da. Ona, o[^]i buruz beste adibidea: Euzko-Jaurlaritza[^]k arestian oso idaztiño polit bat "Euskadi" izenez argitaratu du; bere zazpiga[^]en o[^]ialdean "Ajuria-onea"ren argazki ede[^]a agertzen da, ta berari buruz, aldamenean, azalpen au ematen da: "Jaurlaritzako Lehendakaritza"; euzkal-eliztia oso gutxi ikasi al-izan duen edonork bereala nabarituko du ortan dagoen oke[^]a, berealaxe ere onela zuzentzeko: 'Jaurlaritza' ren Lendakaritza", o[^] eziña baiaa "-ren" atzizkiaren ordeez, "-ko" beste atzizkia erabiltzea.

Geron ustez argi agertzen da "euskara batuak"^k dagien kaltea. Gaur jasan bea[^] dugun menperatasuna, naiz eta Araudi'aren bitartez zerbait legundurik izan, aundia da. Menperatasun ortarako jari diguten kate indardunena ta latzena erdera da, ta erdal-itzak bakoitza kate o[^]en estunak; ukatzerik ez ortaz. Beraz, erabiritako erdal-itz dira kate o[^]en estun berezi bat da, ta sartuko zaizkigun o[^]elako itzak beste ainbeste estunak, katea gero ta gogo[^]agoa biurtzeko. Aitzitik, euzkal-itz za[^] edo be[^]ien bitartez euzkeratik erderakadak kentzea lortzen badugu, kateari beste ainbeste estunak kenduko dizkiogu, bere inda[^]a ta gure menperatasuna gutxiagotzen. Izan al diteke euzkaltzalearentzako zalantzik bidea aukeratzeko?... ez dugu uste.

Alakotz, euzkera ta abe[^]ia ren alde lan egokia egin al-izateko, argi dago euzkaltzaleentzat ja[^]aitzeko bidea. Al ditezken asmo guztietarako, za[^] ala be[^]i, euzkal-itz jato[^]ak erabiltzea, ta bide batez erderakadak baztertzean. Egipen oiek burutzeko, geron iritiz, auxe izan bea[^] bide egokiena: EUZKAL-IZTEGI NAGUSIA egitea; ez, ordea, orain arte egin dan bezela, euzkererdera ta erdera-euzkeraz egiñak dagozenak bezela. Iztegi ori, oso-osoa, euzkeraz egiña izan bea[^] da, bertan itz bakoitzaren esan -naia euzkeraz ere azaltzean ;ori izkuntza guztietan egiten da ta guk ere berdin egin bea[^] dugu, ezinbestekoan. Ba -dakigu lan ori ez urtebetean ez urte gutxitan burutzea eziña dala; baño gaiez-gai egin liteke lan ori garanti aundienekoetaz astean. Lan ortan amaika itz be[^]i sortzea baitezpadakoa da, alegia, baño oiek so(erazi bea[^] ditugu, al diteken guzirako, ta euzkal oña[^] iz egiteko.

Naiz Euzkaltzaindia naiz Euskerazaintza 'k lan ori egitea aintzakotzat artu bea[^]-izango lukete; bereala asteko, ortan iradurik ez ibiltzeko, ta euzkeraren garbitasuna baldintzaz onartzeko.

O[^]a beraz, labu[^], gaurko euzkeraren egokera zein dan eta, bea[^] zaiguna burutzeko, guri onen eta bea[^]ena bezela iruditzen zaigun bidea nola ikusten dogun. Eta azken oa[^] au ere age[^]erazi nai dugu be[^]iro: Egiazko euzkal-bizia gogoarena izan bear; bizi ori euzkeraren bidez baka[^]ik izango dugu benetan euzkalduna; ta ondorioaz, euzkera da zaindu, indartu, garbitu ta zabaldu bea[^] duguna. Ortxe euzkaldun guzientzako egitaraua.

U[^]ESTARAZU[^] tar Andoni

EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

E destiaren erdiarora, jakiña dan bezala, Erromatar-Inperioa Sarkaldean 475'garren urtean jausi zanetik, 1453'garrenean Sarkaldekoa jausi zan arteko epe luzeari esaten zaio: milla urteko epea.

Gure Euskalerrian, oroigailu idatziei dagokionez ez da ain luzea erdiarora, gure idazkirik zaarrena VIII mendekoa bait da. Kukulla'ko Donemillan'go lekaide-txean gorde dana ain zuzen, eta guarko idaz-lan ontan aurkeztuko duguna (1).

Lekaidetxeetan daude gure dokumenturik zaarrenak. Orregaitik, begirune aundiz zaindu bear ditugu gaur Euskalerrian dauden, eta, gaur naiz Euskalerritik landa egon, atzo eskierki Euskalerrian zeuden lekaidetxeetako dukumentuak: Ospetsuak ditugu, gai ooni buruz, Leire, Iratxe, Albelda, Aitzeko Donibane, eta, bereiziki, Kukulla'ko Donemillan.

Larruki zar oiek irakurtzea ez da gauza erreza. Ortan, kidekorik gabe, yayoena eta ziurrena Antonio Ubieto Arteta dugu, eta berari jarraituko diogu guk, berak argitara eman dizkigun dokumentu guztietan.

Ona ain zuzen Kukulla 'ko Lekaidetxearen garrantzia 'ri buruz Ubioto'k dioskuna: "El monasterio de San Millan de la Cogolla se encuentra en la Rioja (Provincia de Logroño) en una zona de confluencia de distintos reinos medievales como las viejas Navarra y Castilla; pero también en una zona de contactos lingüísticos entre el eusquera castellano y arabe. De ahí que su documentación sea fundamental para muchos campos de la investigación (2).

Kukulla 'ko Lekaidetxea, Donemillan 'en omenez eraikia izan zan, eta Millian bera berriz, VI mendeko Santu euskaldun bat dugu. Dirudianez, Berfzeo 'n jaio zitzaigun, Kukulla "tik bertan, gero XIII mendean Bertzeo 'ko Gontzal olerkariak ospetsu egingo zuan errian. V mendean jaio zan, 474'garren urtearen inguruan, Erroma 'ko uria Odoacro heruldarraren mendera jausi baiño urte bete leenago. II, eun urte beteta, 574'garrenean il zan.

Ondo ezagutzen dugu Millan Deunaren bizitza; guztia edestilari zugur batek, Braulio Done Zaragoza "ko Gotzaiak, Donemillan 'en ikasleekin itzegin ondorean idatzia izan bait zan. Laister idatzia gaiñera, Braulio donea 651 'ean il bait zan.

Ez dakigu, Donebraulio 'k bere idazti ori zer urteten egin zuan, baiña bai, argitara eman aurretik Kukulla 'ko Abatari bidali ziola, Donemillan ezagutu zuten lekaideek ikusi zezaten bertan esaten zana egia zan edo ez. Braulio bera aurretik an egona zan, eta lekaide aiei en-

(1) Euskeraren maitaleek errez igarriko dute idazti zar auek aztertzea bultzatzen gaituan arrazoia. Gure euskera gaixoari "H" a sartzeko iru arrazoi damaizkigute Euskaltzaindiaren batuaren zaleek: Iparraldekoen oitura. Ez da arrazoi baliozkoa, Lafitte iparraldetarrak ber-berak esan bait zien Arantzazu 'ko billera doakabe artan, Iparraldean euskera iltzera zihoan ezkerro, iltzera doan ontzi bati ez lotzeko"; ("Euskera", XII, 1968; 224 ot.). Bigarren arrazoia, Erdiaroko larrukien oitura omen dute. Erdiaroko lumalariak "H", batere arau ziurrik gabe, gogoak ematen zien bezela erabiltzen zutelako, au ere ez da zentzuzko arrazoia, adierazi nai dugu. Orrela, irugarrena gelditzen zaie "el batua" zaleei arrazoi bakarra: "H" a euskal erreboluzioaren sinbolo plastikoa dala". Ori, eta itz oiek ber-berekin, nere ustez, esan bait zuan Haranburu Altuna "el batua" zaleak. (esaldia, "Lur" argit.-ren "Literatura" 72 'n dago.

(2) Antonio Ubieto Arteta: "Textos Medievales - Cartulario de San Millan de la Cogolla (759-1076)". Valencia, 1976, pag. 6.

tzunda idatzi zuan Donemillanen bizitza. Geroncio, Citonato eta Sofronio aipatzen ditu Donemillanen ikasle lez; eta baita Potamia lekaimere.

Anaia zuan Donebraulio'k Kukulla'ko abata, eta beste anai batek, au ere gotzai zan Jon 'ek eskatuta idatzi zigun Kukulla 'ko Donearen bizitza.

Donemillan, artzai izan zan gaztetan. Gero, Bilibio-Mendin, Félix Deunarekin bizitu zan bakardadean. Kukulla-Mendin gero, bera bakarrik, berrogei urtez. Geroago, Tarazona 'ko Gotzaiak apaiz sagaratu zuan eta Bertzeo'ko parrokia eman zion. 60 urte zituan orduan Donemillan 'ek. Ez zuan asko iraun Bertzeo 'ko parroko lez, aurka irten bait zitzaizkion ango beste apaizak. Urria omen zan oso Donemillan 'en teologi-jakintza; eta oso baldarra, elizako ondasunak erabiltzen zituan era. Arrazoi zuten aurreneko salaketan, eta bigarreanean ere bai, auzia aiek zekusaten modura: Donemillan 'ek beartsuen artean banatzen bait zituan Bertzeo'ko elizaren ondasunak! Eta Donemillan 'entzat landetako belarrak aski ba 'ziran ere, belar aiek ez izaki beste apaiz aientzat naiko jaki!

Bakordadera itzuli zan ostera Donemillan, eta laister asi zitzaizkion beste apaiz batzuk inguratzen bera gogo-zuzendaritzat artuaz. Baita neskatillak ere Braulio Donearen berriemaille izan zan Potamia ura bezala, eta Kukulla 'n lekaimetxe bat eraikita bertan gelditu ziran bizitzen. Noiz-beinka irtetzen zan Donemillan, aro zaarreko anakoretak oi zutenez, errietan jendeei kristauki nola bizi erakustera.

Oso ospetsua egin zuan bere izena. Il zanean, berealaxe asi zan jendea Kukulla 'ra erromes, eta arrezkero ez zan an lekaidetik peitu.

Kukulla 'ko Donemillan 'en Lekaidetxeaz mintzatzen zaigun larrukirik zaarrena X mendearen asierakoa dugu, baiña gauza eskierra dirudi, Kukulla 'n ez zala VII, VIII et IX mendean itzuten ere lekaidetik peitu. Dokumenturik zaarrenak ere, aspaldikoa bezala aurkezten bait digute lekaidetxe ura.

VII "ean bazirala badakigu, San Braulio 'k dioskunez. An izan zan bera ere erromes, eta baita bere anaia, Jon Gotzaia, ere seguraski, eta Kukullako bakartien zuzendaria Fromiano zala eta bi gotzai auen anaia zala ere badakigu.

Gaiñera, beste lekaidetxe guztiak noiz eta zeinek eraikiak izan ziran jakina zaigu ori adierazten diguten larrukien bidez. Kukulla 'ko lekaidetxeari-buruz ez dugu orrelako larrukirik. Leendik bizirik zetorrena bezala agertzen zaigu Kukulla X mendeko larrukietan.

Kukulla 'ko larrukirik zarrena, eta baita Euskalerriko dokumenturik zarrena ere, VIII mendekoa dugu; 759'ko jorraiaren 24'koa: "die octavo kalendas madias, era septingentesima septima".

Larrukiaren gaia, fekaimetxe baten sorkuntza da, Errioxa 'n, geroago Pedroso esaten ziztaion errian. Aspaldi ontan ez da Euskalerrri lurralde ura, baiña VIII mendean, bai, zearo euskalduna zan.

Euskeraren mugak orduan, egoaldean, Iber-Mendietan, zeuden. Soria 'n eta aren alboan dagoan Garrai 'en, —erromatarrek bertako nagusi egin ziranez gero Numanzia izen-ipiñi zioten Garrai 'en—. Andik, Urbion 'eko Aitzak barrena Oka-Mendieen egoaldeko maldaraiño zijoazen: Burgos'ko uriaren albo-alboraiño (1).

(1) Iñork ez daki ziur Numantia izenaren zergaitia. Numa Pompilio 'ren oroigailua ote? III Alfonsore 'ren Kronikak beste Numantia bat aipatzen du: gaur-eguneko Zamora, ain zuzen. Beste uri batzuen artean, ia berreun urte leenago, F Alfonsore k arabitarrei "Numantia qui nunc uocatur Zamora", ('orain Zamora deritzan Numantia") arfu omen zien ba.

Kronika au maiz aipatuko dugu-ta, eman dezagun berari-buruz azalpen labur bat emen. "Salamanca 'ko Don Sebastian Gotzaiaren Kronika" ere deitu oi zaio, baiña gaur ez du iñork uste ark idatzia danik. Asturiefako III Alfonsore jotzen da bere idazletzat. Izenburu onekin ezaguntzen da idazti au: "Cronica

Uisigotorum a tempore Bambani regis usque nunc in tempore gloriosi Ordoni regis diue memorie Adelfonsi regis filio collecta . (Azkenoko lau itz auek gaizki erabilliak iduriko zaizkio erdiaroko laterara oituri ez dagoanari. Liburua "Alfonso erregearen semeak (Ordoño I "aren semeak) eratua dala" esan nai digute. X mendean izan zan idatzia, ta bi idaztitan iritxi da gugana: Versión Rotense", zaarrena, III Alfontso 'k berak idatzia, agian, eta Versión Ovetense", geroagoakoa, izkeraz askoz txunagoa, baiña baita erretorika geigitox motelduxea ere. Eskierki elizgizon baten lana duzu. "Kronika"ontatikjaso ditudan albiste guztiak Antonio Ubieta Arteta 'k egindako argitalpenetik arfuak dira. Aztertuko ditut bertako euskal-izenak X mendera iristen geranean.

Ibero ibaiaren ertzak beti izan dira elebikoak, ari-endako jendeak iritxi zitzaizkigunetik: euskera ta zeltikera lendabizi, euskera ta latera gero, euskera ta arabiera geroago eta euskera ta erromantzea azkenean..., azken-azkenean erromantzen utsa garaille gelditu zan arte.

Baiña Kukulla, Ibero 'aren ertzetik aski urruti dago, eta baita Pedroso 'ko lekaimetxe au eraikia izan zan tokia bera ere.

— .Toki-izen gutxi ematen dizkigu larruki onek, baiñan bai giza-izen ugari. Iru gizaseme-izen, eta gizaalabenak ogeitazazpi; lekaimeak, auek danak. Emakumeen izenetatik asko argi-argian bisigot-izenak dira: Ala, adibidez, Guntroda, Eilo, eta Ginta. Ta baita Alduara ere, "u ori, orduango idazkeran izaten bait da maizaski. Ala, .ALDUARA ori ALVARA dugu.

Emakume aiek bisigotak ziralaren adigarri? Ez naitAnaiez. Gaur bertan asko gera euskalduna ez dan izena daramagun euskaldunak, baiñan orrek ez du euskaldun ez geralarik esan nai. Orduan ere orixe bera gertatzen zan. Ala, larruki ortan badira izen judutarrak daramazkiten lekaimeak, bi Maria eta Susana bat adibidez, baiñan ez du orrek emakume aiekjudutarrak zilarik esan nai.

Beste izen batzuk, laterazkoak dira: Urbana, Eugenia, Clarea, (Clara, seguraski), Tota, Anderkina (gaur Andresa esange genuke), eta Flagina.

Beste batzuk berriz, zalntzan uzten gaituztenak dira: Bisigotak?, Erromatarrak?, Euskaldunak? Ala,

— .MUNNATA; Muñata, gaurko idazkeran. Ez du balio "Muñata" "Muñoz" 'en emakundea dala estateak, orduan nik, Muñoz ori euskalduna ez ote dan galdetuko bait dizut?

— .DON NA; Dona, gure idazteko moduan. "Doña" ori "Domina", "Doña", "Andra" dala? Bai? eta zergaitik ez "DE OÑA", "D OÑA"; "DOÑA"? Oña erria, oso-osoan euskalduna zan garai artan.

— .NUMADONNA? "Mutua d Oña" ote? Orduan, zer ote dugu Muma?

— .SANCIA. Ezpairik gabe esan dezakegu Santxo 'ren ema-kera dala. Baiña "Santxo", "Antxo", "Antso", euskal-izenak iduritzen zaizkit neri zalantza aundirik gabe. Emen, Euskal-errian sortutako eta beste iñon baiño leenago emen ugari erabilliak izan dira beintzat.

— .SCEMENA. Aurreneko "SC"oiek "X" adierazko erabilli bait zituan, orduan maiz egin oiz zan bezala, gure lumalari zaar arek, XIMENAzenuan emakume aren izena, "E" garai artan itz askotan "I" irakurtzen bait zuten. Ximeno, Ximena, euskal-izenak ote? Ez dakit, eta ez dut uste iñork ziur jakin dezakeanik ere, baiña izen orrek ere emen sortua dirudiala bai, emen erabilli bait zan geiena eta emendik beste bazterretara zabaldu! Bi ziran, lekaime aien artean Scemena izen zutenak.

— .MUN NOZA. Muñoz 'en emakundea. Len ikusi dugu Munnata bat, eta ari-buruz esandakoa bera esan bearko dugu oni-buruz ere. Muñoza onek euskaldun izena zuala eta euskalduna zala bera ere.

— .ANDERAZO. Anderkina bezala Ander 'en ema-kera ote dugu: Andresa? Edo, Anderazo 'ren Andere orrek bai ote du, euskerazko "andre", "andra edo "andere"rekin zerikusia?

—.HURRACA. Au ere, emen zan, batez ere, andreen izentzat erabilia, eta emendik zabaldu zan erdelerrira. Euskalduna ote da? Larruki onek, "H"z damaigu itz ori: Hurraca; baiña ia beti "H"rik gabe ikusiko duzu erdiaroko idazkietan: URRACA edo URRAKA.

—.TOTA. Laterazkoen artean sartu dugu izen au baiña ez zalantza miñik gabe; izen au ere, baitipat emen bait zan emakumezkoen artean oiturazkoa. Askotan TODA bezala agertzen zaigu larrukietan.

—.GOMETIZA. Izen onek ez dirudi VIII mendekoa. Gero erantsia izango da, Luciano Serrano "k berak aitorzen bait du ala izen daitekeala: "Quizas se introdujera posteriormente algún nombre entre las religiosas" (1). Y..., quizbs se latinizara también a mas de unos de ellos", erantsiko nioke nik Serrano 'k dionari. Orrelako lateratzeketak maiz egiten bait ziran. Oridalata gertatzen zaigu ain zailla larrukietan agertzen zaizkigun gizakume eta tokien izenak berenez, erriaren ezpafiñetan, nolakoak ziran jakitea.

Alatagutziz, ondo merezi ditu larruki zaarren arlo onek gure lan eta neke guztiak, leengo euskera nolako izan zan jakiteko beste biderik ez bait dugu.

- - -

Pedroso ¹ ko lekaimeen artean badira oso-osoan euskaldunak dirala diruditen izenak ere. Ala adibidez,

—.AMUNNA: Esan dugunez, "NN"ren bitartez "N" adierazi nai zutelako. AMUÑA dugu antziñako lekaime aren izena: "Amona"ren xumegarri edo diminutibo.

—.MONNIA; edo, orduango idazkeran, MOÑA, "Amuña"ren areagoko xumegarria, "super-diminutivus". "NNI" izkiak, "NN"bezala, Ñ agoskaarazteko erabili oi zituzten. Bazituzten ortarako beste era batzuk ere. Onatx gure "Ñ" ren doñua azaltzeko larrukietan erabiltzen dira izki-jokuak: "NN", "IN", "NI", "NNI", "INN", "GN", "NG", eta, oraindik portugaldarrek oi dutenez, "NH".

Amunna, "u"kin zegoan; orain Monnia "o"kin agertzen zaigu. Ez dio ajolik; izen bera dira, gaur ere "amuña, Euskalerriko toki batzuetan "u"z aoskatzen baita, "o"z berriz, "amoña", beste batzuetan. Izen batean, —gure larruki ontako izen batean — "u" eta bestean "o" erabiltzeak, Bernardo Estornes Lasa "k nai duan bezala, Pedroso ¹ ko lekaime aiek Bizkai 'koak, Araba 'koak, eta Errioxa 'koak, Euskalerrri ossokoak zirala esan nai ote du? Ez dugu uste. Lekaime aiek danak an bertakoak, Errioxa ¹ koak, ziran eskierki (1).

—.UMMA. Orrela, bi "m" rekin; lateratik jasotako oitura. "Ume ote zuan neskatil arek izena?

—.NON NA BELLA. Lekaime aien guztien Abatemearen izena. "Ego igitur abbatisa Nonna Bella", diosku berak larrukiaren asieran: "Nik beraz Nonna Bella abatemek"...

(1) D. Luciano Serrano Abad de Silos: "Cartulario de San Millón de la Cogolla". Madrid, 1930. Sarrera-ren XXI or.

(I) Alfontso III 'aren "Kronika" 'k aipatzen digu beste MUNNIA bat ere, I Fuela'rekin ezkondu Asturietako Erregin izatera iritxi zana; eta emakume ura, —"Muña" bere izen da guzti—, euskalduna, "uascona", zala diosku. Ikus "Kronika beraren itzak: "Froila... Uascones reuelantes superauit. Huxoremque, (orrela, "h" ta guzti) sibi, Munniam nomine suscepit?, exinde unde et filium Adefonsum genuit", ("Rotense" esaten zaion idaztian), "Oventense" deritzan idaztiak berriz xeetasun batzuk geiago damaizkigu: "Vascones rebellantes superauit atque edomuit. Munniam quendam adulescentulam ex Vasconum praeda sibi seruari praeciptions postea eam in regali coniugio copulauit, ex qeu filium Adefonsum suscepit". Euskeraz: "Fruela'k, euskotarrok garaitu ta menderatu zituan. Euskotarrei kendutakoel atik, Munnia izeneko neskatil bat beretzat gordetzeko agindu zuan, eta, gero, neskatil ura ezkontzaz erregin egin zuan, eta arengandik izan zuan, Alfontso bere semea". Alfontso au, Alfontso II izango zaigu geroago. (Ubieto: "Textos Medievales. Crónica de Alfonso III", pag. 42-43).

"Nonna", — "Noña" gure idazkeran — zer izan daitekean ez dakit: Nuño 'ren emakundea? "Bella", bai: "Bela", edo "Bele", euskeraz, egazti ondo ezagun baten izena dugu.

Nuño, ez dirudi VIII mendeko izena izan daitekeanik. Beraz: edo geroago izen ori aldatu egin zioten, edo antziñako gure abateme onuragarri ark, Noña Bela zeritzan, eta "Noña" orrek ez du "Nuño"kin zer-ikusirik "Bela", jatorriz, Araba 'ko izena dala esango nuke nik, emen Araba 'n maiz agertzen bait zaigu izen ori idazti zaarretan: "Bela", eta, izatez eta izanez, Belatik sortua dan "Belasko". 01loaren umeak ollanda eta ollasko diran bezala, belarenak belanda eta belasko bait dira.

Bazuten euskaldun zarrak beren umei abere bikaiñen izenak ipintzeko oitura: Artza, Artzia, (Gartzia?), Bela, Belasko, Otxoa, Otxoa, eta baita Otxanda ere Araba 'n, emakumezkoen artean.

Euskaldunak genituan lekaiame aiek danak iñolaz ere; bisigotak ez bait ziran Pedroso dagoan tokian erabat bizitzen jartzera sekulan iritxi. Ibero ibaiaren ertzetan ere ez zan beñere biztanle bisigotik izan. Gudariak bai; baiña izkillu-jende ez zanik, ez.

Ez dugu, erdiaro garaieko Errioxa 'ren egoera ondo ezagutzen. "Kantauri" 'ko "Dukadu" edo "Kondadu" bat eratu zuten bisigotak Errioxa 'n euskotarren aurka borroka egiteko. Izen ori zergaitik eman ote zioten? Agian duke aren egoitza Kantauri urian zegoalako. Kantauri zeritzan uria berriz, Ibero ibaiaren ertzetan, iparreruntz, gaurko Logroño 'ren aurre-aurrean dagoan muño txiki baten gaiñean zegoan. VI mendean, an izan omen zan, bertako biztanleen oitura lizunak zuzentzeko sermoiketean, Armenti 'ko Prudentzio Donea, kondairak dienez; baiña, kondaira orrek berak, Kantabri edo Kantauri 'ko biztanle aiek euskaldunak zirala diosku. Ba, Kantauri 'ko urikide aiek, VI mendean, Leobijildo aundiaren mendean euskaldunak ba 'ziran, ziur esan dezakegu Pedroso 'ren lurralde artan, Errioxa garai-garaiean, biztanle danak euskaldun utsak zirala; eta euskaldun utsak zirala, beraz, Pedroso 'ko lekaiamek ere.

Iru gizonetzko-izen bakarrik damaizkigu larruki onek: Foilan, Valentin, eta Lupo, ta, erri-izenik, bat bakarrik ez. Soilki erreka baten izena: Tiri. Danak jenitibu-eran.

"Coram predictis patribus, id est, Froilani regls, et Valentini pontificis", idatzi zuala larruki au dio Nonn Bella abatemeak, ("aipatutako ene guraso Froilan erregearen eta Balendin gotzaiaren aurrean"), eta bere lekaidetxea "iuxta Tiri abtavi", "Tiro 'ren alboan eratu" zuala.

VALENTINUS ori, Oka 'ko gotzai dugu ezpairik gabe eta ez Balpuesta'koa nunbaitean irakurria dudan bezala, Balpuesta ez bait zan 804'a arte gotzai-erri izaten asi. Bere aurrenako gotzai Jon izan zan, ez Balendin. Are geiago, 21 gotzai izan zituan 804'atik 1044'ara 240 urtetan, eta bat bakarrik ez Balentin zeritzanik (1). Balpuesta, gaur Burgos 'ena dan Baldegobi 'aren zatian dago, eta bi izen auek merezi dute azterketaxo labur bat.

VALPUESTA. Larruki zaarretan, VALLIS POSITA esate zaio batzuetan eta VALLIS COMPOSITA besteetan; orduan Araba eta gaur Burgos dan lurrean dago. "Posita" eta "composiata", "ponere" eta "componere" laterazko aditzen aditz-izen edo partizipio ditugu, eta beste gauza askoren artean, "eraiki", "eratu", "alkartu", "konpondu", "gertutu", "egokitu", esan nai dute. Tazito edestilariaren idazkietan "acies composita" ("gudarozte ondo gertua") eta "componere civitatem" ("uria egoki prestatu") bezalako esariak maiz irakurriko dituzu. Ortaz Vallis Composita eta Vallis Posita izen bikoitzak, aran ura, arabitarren udaldi oroko

(1) Valentinus zeritzan gotzairik ez dut nik larruki zar-zarretan bat bakarrik aurkitu, Iratxe 'ko larruki batean izan ezik. Baiña askoz geroagoko denborakoa. 928 'gn urtekoa.

erasoek bildugarri egiten zuten Euskalerrriaren Ego artan eskier eta lasai bizitzeko ondo gertutua zegoala esan nai dugu.

Kukulla'ko larrukietan Valis Posita orren aipurik zaarrena 949"gn urtekoa da: "Didacus episcopus in Valeposita testis": Didako, Balpuestako gotzaia, lekuko".

Izen ori, jakiña, Valis Posita eta bere gaztelerazko itzulketa, Valpuesta, ez dira euskaldunak. Leenago euskal-izen fraten lateratzea ote ditugu orduango "Vallis Posita" edo "Vallis Composita" aiek?

"Oianederra"ren antzeko "Aranederra" baten laterakundea? (1) Edota, erri ura arabitarren aurka babestu zuteneko denboran ipiñi zioten izen berria ote dugu? Baiña izen orrek dokumentuetarako bakarrik balio zezakean, ez erriaren eguneroko izketarako. Nola deitzen ote zion uri arri, bere euskeran, zero euskaldunak zan erriak? Gaiñera, an ez da sekulan uri babesturik izan, arri-ormez babestutako uririk. Ez dute beintzat dokumentuek aipatzen eta ez da lurrean ere alako arresien aztarnarik aurkitzen. Ortaz, euskal-izen baten itzulpena dugu noski Valis Posita ori. Nolakoa ote zan Euskal-Izen ura? (2).

—VALDEGOBIA. Araba 'ko sarkalde-sarkaldean duzu aran polit onen zatirik aundiena. Beste zatitxo bat, ain zuzen Balpuesta dagon zatia, Burgos 'ena da. Valdegovia, euskeraz, GOBIARAN izango litzake bere izena.

"Gobia", "leiza" da Bizkai 'ko euskeraz, Araba 'n itzegiten zan euskeraz. Gaur egun oraindik "GOBIAS" esaten die Araba 'ko mendi-jendeak, Arluze 'atik Baldegobi 'araiño mendi aietan dauden lur-zulo ugariei. Zulo aiek, larogeiti gora badira, eta erdiaro garaiean bertan bizitu ziran anakoreta edo bakartasun-zaleek irikiak izan ziran. Zulo oiek eman diote bere izena gure sarkaldeko aran arri: "Valis-Gobia" = "Valle de las Gobias" = "GOBIARAN". Baiña izen ontaz beste egun batean mintzatuko gera, oker emana bait du orain Euskaltzaindiak eman diona: Gaubea.

—FROILAN. Asturietako Fruela I 'a dugu. 757 'tik, 768 'ra izan zan Errege.Arrigarri egiten zaigu bere izena larruki ontan aurkitzea. Asturiarrak eta euskaldunak etsai amorratuak izan ziran beti alkarren artean eta batez ere VIII eta XIX mende aietan, Bearbada, arabitarrek baiño leenago ekin zieten gudaz asturiarrek euskotarrei, edo, obeto esateko, V mendea ezkeror ari ziran eten gabe euskotarren aurka borrokan, asturiarrek bisigoten jarraitletzat eta egiazko bisogotalzat bait zeukaten beren burua (3).

766'garren urlea arte ez zioten arabitarrek Euskalerrriari eraso. Orduan Bedr buruzagia izan zan Araba 'ko lurretara urbildu zana, baiña urbiltze ura, erasoketa bat baiño geiago izan zan ikerkela bat, ain zuzen, "ikerlariak bidali zituala lurralde auetara bertako jendeen asmoen berri jakiteko, bait diosku Ibn Adhari edestilari arabitarrek. Ez aztu une artan Araba ziralda Errioxa Garaia eta Bureba osoa, Okamendien egoaldera arte.

Euskalerrriaren aurkako maometarren egiazko lenen ekitea 781 'ekoa da. Urte ortan I Abderramon 'ek eraso zien Naparroa 'ko eta Araba ko Euskaldunei. Ibn Belaskot aipatzen du arabarren buruzagi lez, ots, BALSFORENA. Bela eta Belasko, goraxeago esan dugun

(1) Ede ra itza, ez duzu euskal-toponimian arras oituraz-kanpokoa. AIA, Pedroso Tko Lekaimetxearen ir unukielan "LARREEDERRA" bat agerfzen zaigu.

(2) Gazleiuixo edo torre txiki baten ondakiñak, bai, badira Balpuestan; Baiña askoz geroagoa ta oso K;xk°rra dugu lorrelxo ura Aran guzia ain izen dotorez, —(iVallis Composita!—, goi-ornitzeko.

Baldegobia dagoan Udalak, SAN ZADORNIL deritza. Eskierki Donemillan 'en antzeko bakartiren bat izango zan Donezadornil. Izena beintzat ondo euskalitzurakoa zan.'Zador", Araba 'ko ibairik urtsuenaren izena dugu; "BIL" atzizkia berriz, euskal toki-izen askotan dago.

(3) t r;:ian edo Fruela bere, euskaldunak borrokatzero etorri zan onera (urte arfan bertan bearbada)eta emen iapurulakr; neska bat egin zuan gero emazte ta orregin, goraxeago ikusi dugunez.

bezala, erdiaro garaiean eta bear bada baita leenago ere, gizakume euskotarren artean oso oiturazko izenak ziralararen adigarri (1).

Baiña ordurako, askoz leenago, baita Bedr buruzagia onuntz urbildu baiño 23 urte leenago ere, euskaldunon aurka gudan genuan Asturietako F Alfontso: 743'tik 745'era dijoazten iru urteetako batean ekin zion Euskalerrriaren egoaldeari, "ocupando y abandonando inmediatamente, (después de matar a sus ocupantes, destruir sus fortificaciones y talar los campos), las localidades de Aucañ (Villafranca de Oca), Veleia Alavense (Veleia?), Mirandam (M. de Ebro) Carbonariam (Carboneca), Reuendecam (entre Miranda y Haro), Abeica (Abecia de Oca), Brunos (Briones), Cinisaria (Cenicero), Alesanco (Alesón) y Oxima (Osma, bien el alabés o el soriano", B. Estornes Lasa 'k dioskunez (2).

Zer aizekjota etorri ote zan I Alfontso bisigota Euskalerrriaren egoaldeari su ematea? Tarik bere arabitarrekin Españi 'ra iritxi zanean bisigotak betiko oitura zuten bezala, euskaldunen aurka gudan zebiltzan eta Roderik erregea buruzagi zutela Iruña inguratuta zeukaten. Egin ote zitoen orduan ikaragarrikeriren bat euskaldunek bisigotei, eta ikaragarrikeri ura aiertzera ta zigortzera etorri ote zan I Alfontso Euskalerrira?

Uste utsetan nabillela esango didazu; egia da; baiña ez da nere usle au iñork pentsa lezakean bezain ustela. Beste era batera ez bait da ulertzen nola arabitarrek ain errez bisigoten jaurreri osoa ain errez ezereztu zuten. Betidanik buruz-bera ibilli ditu edestilariak erreztasun orrek. Milla arrazoi billa nai izan dituzte ondamen ura adigarri biurtzeko, eta errezenera jo dute, ez logikaren arauz egokienera: españiarrek oiturezkoa duten lez, judutarrei jaurti diete errua: judutarrek iriki omen zieten arabitarrei Españi 'ko atea. Uste utsa guzia, baiña zeoro ustela oraingoan, uste makur ori. Arrazoizkoa, orduan bisigotak euskaldunen aurka gudu beroan zebiltzala pentsatzen zan; Guadalete 'ko berri jakitean atzeruntz egingo zutela; eta bat-batean, kukildurik igesi-bezala zijoazen etsaiei ezer egin gabe ez zirala euskaldun garailleak geldituko.

Ona, nere ustez nola gertatu ziran gauzak: Afrikarrek maiz egin oi zituzten Andaluzi 'ko itxas-ertzetan sarrerak. Kolpe baiezko sarrera aietako bat, pentsatu zuen Ruderik Erregeak, eta bere gudaroztea Iruña 'ko zelaietan euskaldunen aurka borrokan utzirik, Andaluzi 'runtz abiatu zan bera, gudari talde batekin, Zergaitik ez zuan buruzagi bat bidali? Oraingoan Afrika 'tikoak besteetan baiño ugariago zirala jakin zualako. Baike, etsai aiek besteetan baiño

(1) Albiste ori Machmua edestilariak dakarki. Gertakizun bera idaztean beste edestilari batek, Ibn Al-Atir 'ek, buruzagi arabar ura, Bela "ren seme ez baiña, Adalaricon "en semea zala dio. Bi izen ote zituan gure buruzagiaren aitak, euskalduna bata, BeIa, eta atzerritarrek ipiña bestea, Adalaricon? Ori ere oso errez gertatu oi zan gauza dala bait dirudi. ("Enc. Genl. Ilustr. del Pais Vasco-Alava". I, p. 369).

(2) Ibdm. Estornes 'ek damaigun berri ori, aipatutako, III Alfontso 'ren "Kronika'tik artuak ditu (L. c. or.) Oker uste du Estornes 'ek erri oiek orduan, "moroen eskuetan zeudela agian" ("debian estar ocupados por los moros") ez bait ziran iñoiz aien menpean egon. 739 'an jantzi zuan I Alfontso k buruntza. la berreun urte geroago idatzi zuan III Alfontso k bere "Kronika", eta Euskalerriko albisteei-buruz ez dirudi oso fidagarria. Ez du zeatz esaten, F Alfontso 'k Euskalerrian zeuden erri oiek nori artu zizkion; arabitarrei artutako errien zerrendan sartzen ditu. Egia da zerrenda amaitu ta bereala "mauritar guztiak ilda kristauak berekin aberrira eraman zituala" diola: "Omnes quoque arabes gladio interficiens, christianos secum ad patriam ducens". Esaldi ori, erri-zerrendari erantsia dakusgu, baiña ori gaur egindako gauza da, antziña artan esaldi guziak, tarferik gabe, bata-bestearen atzetik alkarri josiak idazten bait ziran. Gaiñera, bereala, "arabarrak beti beren luraren jabe izan zirala" dio III Alfontso 'k, eta, aro artan, Bureba bete-betean araba zan. Gaiñera, "kristauak aberrira eraman ba 'zituan, zer aberrira eraman zituan Araba 'ko errietako kristauak? Gezurraren-lurriña ikusten zaiola idaztiaren zati oni! "Oventenze" k berriz, I Alfontso k "ildako arabitarrek, berak artutako uri aietan bizi zirala esaten du; un aietan danetan, jakiña. "Omnes quoque arabes occupatores supradictarum ciuitatum interficiens". Baiña ori, III Alfontso 'k ez dio. Apaiz batek erantsi zuan ori geroago, orrela idaztiari nabarmentzen zaion "gezurraren-lurriña lodiago biurfuaz. LEz ote dugu sekulan apaiz euskaldun batek idatzitako "Kronika" bat zokoren baten aurkituko?

ugariagoak ziran; ez asko; amar milla; baiña bai Don Rodrigo'k uste izan zuan baiño geiago, eta orrela izan zan, Guadalete 'n edo, garaitua. An galdu ere galdu zuan, uste danez, bizia. Bisigoten gudarozteak euskaldunen aurka borrokan ziarun, eta Andaluzi 'ko ondamenaren berri jasotzean, kukildurik, egoalderuntz asi zan presaka, etsai berri aiei aurka egiteko.

Euskaldunek ere jakin zuten, —naitanaiez—, Roderik Erregeari gertatua. Aientzat, Afrika 'tik zetozen aiek ez ziran etsai; urruti zeuden, eta euskaldunek ez zekiten oraindik jende aiek nor ziran eta nolakoak ziran; ezta zertara etorri ziran ere. Euskaldunentzat, etsaiak, betiko etsaiak, bisigotak ziran. Gero ere, arabitarrekin askoz obeki konponduko dira euskaldunak bisigotekin edo aien oiñordeko ziran asturitarrekin baiño.

Orain berriz, aurrean zeukaten euskaldunek bisigoten indar guzia zan gudaroztea. Betillun eta goibel, atzeruntz zijoan egoaldera, presaka eta ia laisterka, euskaldunei bizkar-emandak, gudarozte ura dana. Ura zan euskaldunentzat apentza guztien ordua; eta bizkarretik eraso zioten bildurak arturik igesi bezala zijoan gudarozte arri, eta... izugarritzko sarraskia egin zuten, bearbada, bisigota izutu aien artean. Zoritxarrez antziñako euskaldunek ez ziguten beren ekintzen edestirik idatzi, baiña bestela ezin ulertu daiteke nola amar milien bat arabitarrek bisigoten erreñu indartsu zabala ain errez eta ain azkar menderatu aal izan zuten. Ez zuten areriorik aurkitu!; euskaldunek desegin bait zuten bisigoten indarra!!!

71 1 'ean gertatu zan ori. 28 urte geroago, ondo bizirik zegoan oraindik gertakizun aien oroitza, 739'an Alfonso I 'akAsturietako buruntzajantzi zuanean. Era berean zegoan bizirik euskotarren eta bisigoten arteko gorroto zaarra. Baita geroxeago ere 757 'an Fruela I 'a, Alfonso ildakoan, Errege izendatua izan zanean.

Alfonso I 'a ere ez zan Bureba-aldean euskaldunei artutako lurretan gelditu. Erriak desegin, jendeak il, eta Asturietara itzuli zan ostera. Argi adierazten digu orrek zenbait aiñakoa zan euskaldun eta bisigoten arteko aierkundera. Etorri ere, euskaldunei gaitz egitera bakarrik etorri bait zan onera!

Orregaitik oso ulerkaitz egiten zaigu Fruela'ren izena Pedroso 'ko larruki ontan ain era onuragarrian aurkitzea. Errioxa garai-garaiean, Burgos'ko Errioxa'n ain zuzen, zegoan Pedroso (1). An ez zan sekulan bisigotik bizitu; lurralde ura ez zan beñere bisigoten mendean egon. Nola agertzen zaigu ba, ain era aintzatsuan Fruela 'ren izena, bisigoten eta euskaldunen arteko gorrotoa bizi-bizirik zegoan unean? Apokrifoa ote dugu larruki au? Oroi Ubieto (Arteta 'k) dioskuna: "He insistido reiteradamente que la documentación de San Millán de la Cogolla contiene abundantes falsificaciones, sobre todo entre los textos más antiguos". Au da berriz zaarrena !!! (2)

Ala ere, mundu guztiak egiazkotzat jotzen du dokumentu au-ta, seguruaski, Froila 'ren izena geroago erantsia izango du; seguruaski XII mendean, dokumentu auek "Becerro Galicano" esan oi zaion bildumara aldatu ziranean. Mende artan, gaiñera, lore-lorean bait zegoan Errege Asturiarren oiñordekoen arrokeria. Oroi, nola esan digun Serrano 'k orrelako izen-berri-erasketak larruki ontan egin dirala (3).

(1) Badakizu Errioxa, Araba, Burgos, Logroño, Nafarroa eta Zaragoza 'ko probintzien artean zatiturik dagoala. Orregaitik oker egin zuan Logroño koak, autonomia artzean bere buruari "La Rioja" izen-ipiñi zionean. Logroño ez zan, eta ez da, gaiñera, Errioxa "ren zati bat bakarrik, zati ori eta Kamerueta baizik: "Rioja y Cameros". Nortasunaren faltak eraman zuan okerkeri ortara. Berdin esan daiteke Santander "ez ere.

(2) Ubieto, l.c. 6 or.

(3) "Becerro Gotico", ete "Becerro Galicano", agian leendik entzunak dituzun esaldiak dira. "Becerro" gazteleraz larruki-bilduma bateri esan oi zaio. Kukulla 'ko larrukiak, berriz, bi bildumetan zeuden XII mendea ezkerro. Zarrena, "Gotik Bilduma", galdua dugu. Bigarrena, Galik Bilduma, XII mendearen azken-azkenean izan zan, larruki zarrak larruki berrietara aldatuaz, eratua; ori 1 194 'tik 1 196 'era egin


zan, Serrano'ren ustez. (L.c. IX or.). "En el siglo XVIII, cuando aun no se habian dispersado sus fondos, (Kukulla"koak), se preparó un manuscrito... Esta colección del S. XVIII se conserva en el archivo del monasterio emilianense y ha recibido el falso titulo de Colección Mingella" ya que tal erudito lo manejó a principios de este siglo (XIX). Dicho manuscrito fue transcrito para el P. Serrano que lo publico© sin advertirlo (Ubieto. L. c.).

—LUPONI. Genitubu eran au ere: "Luponi presbiter hii omnes roboravit in Christo, amen": "Au guzia, Kristo lekuko, LUPONI bereterrak egiztatzten du".

"Presbiter", dio; "presbiteri" bear luke, agian, itz au nominatibuz eta "Lupini" genibuz egoteak zerbat adirazi nai ez ba digu: "Luponi" bera ere, giza-izen dalako, nominatibu-eran idatzia daukagula. Orduan Luponi, gaztelera Lopez izango litzake eta euskeraz LO-PERENA.

Lope, ordea, eta Lopez, edo Lopiz ez dira VIII mendeko deiturak, geroagoak baizik. Ortaz, naitanaiez, Lupi ori, —geroago erantsia ez ba 'da beintzat—, euskal-izen baten laterakunde dugu: OTSOARENA edo OTXOARENA, OTXOTORENA, bearbada, "to" ori, lentxeagoko "tx"z gaiñera, beste xumegarri edo diminutibu bat bait da. Galik-Bildumak izen-aldaketak egiten dituala, oar-damaigu Serranok: "moderniza algunos apellidos" (4).

Bixente LATIEGI



(4) "LOPE", VIII mendekoa ez baiña geroagoko izena dala diot; "Lope", erromantzea bait da, ez latina, eta VIII mendean erromantzerik ez bait zan. Euskera itzegiten zan orduan Tiro ibaiaren ertzelan, eta, jende ikasi urriaren artean, latera. "Otsoa", esan dugunez, "Lupus" da lateraz, "Lupo" ablatibu-eran. Ortik, "Lupo"tik, etorri zan "Lopo", ("Lope, bokatibu-eraz) eta "B" ta "P" bata bestearen lekura errez aldatzen diralako, "topo"tik etorri zan "Lobo".

IAUAXETA -REN OLERKIEN GIZATASUNA

"Lauaxeta"ri buruzko idazlan eder bat agertu zan "ZER aldizkarian urte onen asieran. EUSKERAZAINTZA "k "Lauaxeta"ri azken bagillan Mungia "n eskeiñitako omenaldia gogoratu, lan aretako zati bat argitaratzen da zenbaki onetan.

1. Azken urteotako bibliografia

Lauaxeta "k, gerra ondoko urte luzeetan ezezagun eta ixilpean izan ta gero ,azken urteotan badau gora ta aipamenik .Antologia eta literatura kondairetan egiten zan bere aipamena eta agertzen ziran bere olerki batzuk t .Onaindia 'ren Milla Euskal Olerki Eder bildumak 19olerki emon ebazan).Baiña gerra osteko belaunaldiak ez eben aren garrantzia eurakentzeko erarik izan . Gerra osteko idazleen artean, Mikel Zarate "k egin eban aren goramen bioztla (Bizkaiko Euskal Idazleak, Bilbo 1970). Errazoiz diño S. Onaindia "k 1974 "garrenean berak argitaratutako Olerkiak liburuaren bidez ezagutua izan zala gelen bat (Bide Barrijak, Bilbo 1980: "Aurkez ";egille berak Olerki guztiak, Bilbao 1986, 34 or.). Izan be, gerra aurreko belaunaldikoai egoken eta batez be lagun eta zuzpertzaille izan ebenai, olerkariaren izena ta izatea gerokoai eskuratzea.

Orain ,ostera, pozik izan geintek ez burutzen diran lanakaz.A) Lauaxeta 'ren lanen argitalpenak. 1980 garrenean Bide Barrijak (Bilbo 1982). J .Kortazar "ek eta Miren Billelabeitia "k Olerkiak (San Sebastian 1985). S . Onaindia "k Olerki guztiak. Onenaz ganera, Patxi Altuna "k argitaratuko el ditu Loiola "ko artxiboan diran lauaxeta 'ren erderazko eta latinezko olerkiak (J. Kortazar,Olerkiak o e., 355. or .). Aita Kortina ei dabil, bestalde, Lauaxeta 'ren bizitza zeatza lantzen (bertan, 6. or.).

Azkenengo argitalpen bi oneetan, Lauaxeta 'ren liburu biak (Bide Barrijak, Bilbo 1931, eta Arrats-beran, Bilbo 1935) eta aurkitu aal izan diran beste olerki guztiak agertzen dira, jatorrak eta Lauaxeta "k euskerara itzuliak: aldizkarietan azaldutakoak, kartzelakoak (1974 garreneko Olerkiak liburuan eta 1977 garrenean Gaiak aldizkarian —Durango "n — emon dakoak), eta besteren bat. Barri-barririk edo leen argitara bakorik ia ez dago : azkenengo argitara bakoa erderazko eta kartzelan idatzitako El home bien barbado y bien amohinado dogu, Kortazar ek Pamiela aldizkarian jakin-azo euskuna (hazlla, 1985). Baiña gureztat itzulitakoen artean. Nai ta alderdi ia barririk agertu ez, oneek be jakingarriak Lauaxeta "ren idaz -ankera eta olerti eziketa obeto ezagutzeko.

Argitalpen biok sarrera aberatsez orniduta datoz: bizitza zertzeladak (1974 garreneko Olerkiak liburuan Zaitegi k emonikoez ganerakoak asko ta asko),olerkariaren tankera, literatura ingurua ta meritua aztertuz. Onaindia 'ren argitalpenak, bere oarkizunak eta geiga -rriak ezeze, batez be Lauaxeta "k bere liburu biei jarritako gaztelerazko itzulpena dakar aurrez -aurre, askok esker onez artuko dabena. Kortazar eta Billelabeitia "ren argitalpenean, olerki bakotxaren amaieran komentario literarioa dator. Egoki deritxot bide oneri. Baita, alboan itzulpenik ez daukanez,oiñeko oarretan berba gitxiago ezagun edo bakanen esangu -rea argitzeari be.

Esker andia merezi dabe biak. Olan be,egi lleak ez dabe argitalpen kritikorik egiteko asmu -rik izan . Eta ez daukagu olakorik, onezkeru bear litzaken argitalpen kritikorik: au, batez be, Lauaxeta "k berak argitara ez ebazan olerkientzako . Baiña, gero, bietan aurkitzen doguz gura geinken baiño uts geiago.Zoritxar andia dogu au, olako aalegiña egin ostean, olerkariaren lanak zeatzago eta duiñago ez urtetea. L.Akesolo "k diñoanez, ain zuzen be gai berari buruz,

"ez da errez gaur euskerazko liburuak inprentatik uts barik ateraten" (Karmel, 1961, 1, 81 or.). Baiña irakurte okerrak be egin dira, Akesolo 'k bertan, Kortazar eta Bilelabeitioren argi-talpenari buruz erakusten dauan lez (eta errez noberakegiztatu daiketan lez). Ganera, Kortazar Bilelabeitia 'ri "Ven, Señor" aaztu jake, eta Onaindia 'k jator bi (Biotzaren negarra eta Izar ituna Kortazar, 231-232 or.) ez ditu sartu, eta itzulpen bi (Carducci 'ren Idla eta Verlainen 'ren Amets kutuna Kortazar, 233 eta 245 or.).

B. Literatura ikerketak be ugaritzen doaz azken urteotan. J. Kortazar ek gai oneri emon dautso bere tesis lana: *Tepria y practica poetica de Lauaxeta*. Bilbao 1986. Lan onen frutuak dira leen aipaturiko Olerkiak liburuaren sarrera eta komentarioak; bardin, Azalpenak liburuari jarritako sarrera. Eta Lauaxetaren olerkigintzaren ardatzak, *Jakin*, 36 (1985) 79-98 or.; Gerra aurreko giro literarioa, *Jakin* 29 (1983), 6-15 or. Eta olerki batzuen ikerketa zabalak: Lauaxeta: "Zelaian" Poema, "Euskeraren iker atalak", 2 (1983) 9-19 or.; Lauaxeta-ren Artzain baten erijotzean, "Euskeraren iker atalak", 2 (1983) 23-49 or. eta "Euskeraren iker atalak", 3 (1985), 223-227 or. B. Aretxabaleta: Lauaxetaren Ondartza, "Euskeraren iker atalak", 1 (1982); Guillermo Etxeberria-Iñaki Iñurrieta: *Euskal Ilteratura. Textu azkerketak* (Bilbo 1985): "Mendigoxaliarena", 135-141 or.

Kortazar 'ek, ganera, aparteko eraz Lauaxeta 'ren iturriak, edo aurreko eta inguruko olerkariak onegan izan daben eragiña aztertu dau. "Gaurkoz au da bere arlorik bereziarena. Izan be, Aitzol 'ek bere aldian esandakoak ezker, ia jorratu bako soloa izan" da au. Kortazar sakon-zabal leiatu danik ezin ukatu. Alan be, egiztatzeko leku egokia au izan ez arren, eragin larregi aurkitzen dauala pentsa lei. Bestalde, badakigu eragiña izateak ez daukala berez garrantzi-rik: arte eta olerkari guztietan aurkitu leitekez zelan edo alango eragiñak, literarioak nai beselangoak; gure berbete eta batez be gure irudi ta pentsa-mundua ezerezetik ez dira iñoz be sortzen eta, gizarte eta mundu eta kultura baten barruan baiño. Zer guzti orreekaz ezer barri-rik, bizikuntza ederrik sortu eta emoten dan dogun azken baten auzia, ertilari, olerkari nai beste kreatzaille guztietan. Lauaxeta 'k be idatzi ebana: "Olerkiaren arima azaldu bear da, zelako artegatasunak darabiltzan edo olerki osoan poesirik dagoanik" (Azalpenak, o.c., 137 or.).

2. Literatura ezagupena Lauaxeta'gan

Orain esandakoari lotutajatorku gal au. Lauaxeta 'k literatura eziketa ona izan eban, bere ikasketari esker eta gero bere irakurketen bidez. Zaitegi 'ren zeartasunak jakuz emen lagun-garri: Lauaxeta beste jesuita gazte mordo bategaz Loiola 'n ikaste zala, 1924 garrean euskalzaletu zan (1921 aldatua zan Durango "tik ara). Gazteok euskal bazkuna sortu eben, gero Oña 'n eta Marneffe 'n be jarraitu ebana. Apalategi k irakatsi eutsen ondo euskal aditza. Jesusen Biotzaren Deia aldizkaria euken euren euskal lanak azaltzeko. Orduan artu eben eladerazko eta latinezko klasikuak euskeratzeko erabagia, baktotxak bere egitekoa artuz, Ez dakigu Lauaxeta 'rena zein izan zan. Eta nai ta erabagi onek geien baten porrot egin (Zaitegi k jarraitu eban, dakigunez, eta Andima Ibiñagabeitiak be itzuli ebazan Birgili "ren Unai-kantak eta Alor-kantak), gazte talde aren euskal giroa eta kultura mailla erakusten daukuz. Zaitegi zorrotzak ondo ezagutu ebezala diño Elade eta Erroma 'ko idazle, olerkari ta izlariak. Errandoneak Kikero, Sofokel, Demostene, Tukidide irakatsi eutsezan, eta gero Shakespeare, Vieira brasildarra, Colombia eta Chile 'ko izlariak. Estefania Aitak Bergili 'ren Eneida, Orati, Ovidi, Tibul, Propertzi. Eta erderazko elertia, inglesa, frantzes, italiarra, alemana, portugesa, katalanerazkoa. "Olerkari bakoitzaren lanak irakurtzen zizkigun ugari". Erdal izlariak, Luis de Granada, Luis de Leon eta abar Nosedal 'enganaiño Juanjo Goikoe-txea 'k. Ikusten da bearbada izlarlak azpimarratzen zirala, eta, bestalde, izkuntza guztiotako idazleak ezin eitekezan askorik sakondu; baiña interesgarria dogu olerki jatorrak irakurriz emondako irakasketa ori. Idazleok geien baten leengoak izan arren, ikuspegi zabala artzen

eben ikasleak irakurte zuzen orren bidez.

Oña 'n egoala, frantzez olerkariak atsegin andiz irakurten ebazala daki G. Garate "k (Argia, 1981, ekaiña, 14, 23 or.: orain **Olerki guztlak**, 507; ikusi bertan orduko literatura texto klasikuak be egarriz irakurten ebazala).

Izkuntza klasikoez ganera, Europa 'ko izkuntza nagusiak be irakurteko lain ikasi ebazala diñosku bere ikaskide izan zan Andima Ibiñagabeitia 'k. Bere zaletasuna eta gogo zabala erakusten dausku beintzat aalegin onek. Katalanari be ekin eutson, ango poeta nagusi batzuk irakurteko (Verdaguer, Maragall, Costa i Llovera, Mestres eta abar). "Garai artan, egia esan, katalanaren berbizkundeaktxoratuta genduzkan gu guztioketa gure ametsa alako zerbait Euskalerrian egitea zan" (**Eman**. Cuadernos vasco-americanos, 2, 1957, 1 or.: orain **Olerki guztlak, o.c.**, 506 or.).

Azalpenak idaztiak birrazaldu dituan lanak erakusten dauskue zelako literatura ezagueran eban Lauaxeta "k. Ikusi daiguzan gaia ezagutuz darabiltzan izenak. Eladerazko idazleak: Omero, Pindaro, Teokrito, Safo, Sofokel. Erromakoak: Virgili, Ovidi, Horati, Apulelo, Petronio, Juvenal, Agustin.

Inglesak: Keats ("Englanden sortu dan lirika lakorik iñon ez dala sortu aitortu bearrean gagoz" **Azalpenak**, 133 or.). Alemanak: Goethe, Holderlin, Navalis, Heine, Klopstok.

Italiarrak: Dante, Foscolo, Leopardi, Carducci ("sei illabete ez dira Milan 'etik ekarri nebazala aren Odak", diño 1932 garreneko urrian **Azalpenak**, 131 or.).

Frantzikoak: Andre Chénier, Victor Hugo, Musset, Lamartine, Gautier, Baudelaire, Mallarm^, Bataille, Richepin, Valery, Apollinaire, Claudel, Gide, Cocteau.

Katalanak: Costa i Llovera, Maragall.

Españarrak: Fray Luis de León, San Juan de la Cruz, Garcilaso, Gdngora, Bécquer, Unamuno, Machado, Alberti, García Lorca, Guil^n.

Bibliatik: David.

Aipaturiko olerkari batzuen olerkiak eta beste batzuenak (Tennyson, Verlaine, Jammes, Sully-Prudhomme, Maeterlinck, Branville, Verdaguer, Mazzoni) itzuli ebazan 1928-1929 garrenera, ain zuzen be **Bide Barriak** idazten eban sasoiari. Beste izenik be aipatzen dau, batez españakoen artean, baiña emen jarritakoak bere literatura eta olerki ideak argitzeko adibidetzat ataraten ditu, eta euren barruragoko ezagupena erakusten dau.

Euskaldunen izenak be agertzen dira. Bere belaunaldiko olerkariak: Lizardi, Orix, Jautarkol, Jakakortajarena, Tapia -Perurena, Zaitegi, Onaindia, Erkiaga, Munidtegi; bere aurrekoak, oindiño aldikideak: Emeterio Arrese, Kepa Enbeita, Manu Enbeita, Gabirel Manterola. Erabili eban Manterola 'ren **Cancionero Basco (Olerki guztlak, o.c.**, 509 or.; ikusi bertan Eusebio Maria Azkue "ri buruz).

Bertsolaritzaren estimaziño andia erakusten dau 1931 garrean idatzitako lan baten: ez dago eurak lakorik Aberriaganako maitasuna biztuteko (Aberriaren suak urtetzen eban Kepa Enbelta "ren aotik eta igarle bailitzan entzuten eutsoen). Bazkuna eratu bear litzake eurak laguntzeko; orretarako bertso zaarren liburuaren premiña dago, eta pozik jasoko ditu bialduko dautsoezanak (**Azalpenak, 171-2**).

Labur esateko, Lauaxeta 'ren literatura eziketari iturri oneek arteko izan dira:

1. Elade eta Erroma'ko klasikuak.
2. Dante aaztu barik, España "ko klasikuak.
3. Emeretzi eta ogeigarren gizaldietako Europa 'ko olerkariak (baiña amazortzigarreneko Chénier 'engandik asita: asko mlresten eban neoklasiku au **Azalpenak**, 131: Chénier lako olerkari asko ez dagoz ludion").
4. Euskalerriko poesigintza literario eta errikoia.

(Jarraitzeko)

Luis AROSTEGI

PEDRO IGNACIO BARRUTIA-REN ACTO PARA LA NOCHE BUENA LATXAGA JAUNAK ARGITARATUA AURKEZTEN

Gaurko liburuaren aurkestea au egia da berandutxo datorrela, orain baiño lenago egin bearrekoa zala. Liburuan bertan irakur dezakezue egilleak noiz amaitutzat ematen duen bere lana: euskerazko zatia, 1981an amaitua da, eta erderazkoa, ere, 1982garren urtean, Barrutia jaio zeneko eun urteren barruan, beraz. Orkusi dezakezue noiz atera zen inprentatik eta noiz lortua duen kaleratzeko baimena, 1983garrenean. Liburu onek izan bear zuen Barrutiari bere mendeurrenean eskeintzeko oroigarri bikaiñena eta omenaldirik egokiena. Orixe zan Latxagaren asmoa ere. Manuskritoa aurkltu zueneko ori zerabilen berak gogoan. Orain bederlatzi bat urte berari entzuna dut: bere ikasketa eta tesilanak, ezin atzeratuzkoak, bukatutakoan, Barrutiaren edizioa gertatzeari ekin bear ziola, Barrutiaren mendeurrenerako, bederen. Baiña, asmoak asmo, gauzak ez zaizkio berak nai bezala gertatu. Liburua inprentatik atera ondoren ere, berbera gure artera etorteko aukerarik ere ez zala aurkeztu oraindio. Eta azkenez, bera gabe liburua kaleratzeko baimena eman du. Eta ona gaur, luze-irixirik zeuden guztien pozgarri, non dugun emen zorioneko liburua, Barrutlaren manuskritoaren aurkestea, Latxaga, aurkitzaille zori obekoaren azterketa lanarekin batean. Gertaera au gogoangarria izango dala emendik aurrera gauza jakiña da eta merezi zuen gaurkoa bezalako billera batekin ospatzea.

Tamalez edo zoritxarrez, nerl egotzi didate aurkespena egitea, eta baietza emon dudan ezkerero, barkatuko al didazute zuen aurrera agertzeko nere ausardla eta ondoko nere jarduna, beldur bai nalz aspergarriegi egingo ez ote zaitzuen.

Donostian gaude. Eta emen ez dut uste Latxaga jaunaren berri zuoi eman bearrik dudalanik. Donostiarra duzue bera. Jose Maria San Sebastian izenez, eta ezizenez Latxaga. Nik aña edo areago ezagutzen duzelakoan nago Aspaldian atzerrian bizi da, orain USA'n, Goi-Amerikan. Nik aña dakizute noski nolako lanak egiten ari dan gure kulturaren ainbat arlotan. Langille porrokatua, olakorik gure artean bada. Gaur emen aurkesten dan liburu au lekuko: Acto para la Noche Buena, Pedro Ignacio de Barrutia (1682-1759). Barrutiaren manuskritoak eta Latxagak berak ezarri dizkion eraskin eta azterketak osatzen dute liburua.

Eta nor dugu Barrutia? Orain ia berrogeita amar urte inguruan asi zan euskal -idazletzat beronen izena gure artean aipatzen. Azken urteotan sekulako ospea lortu du, baiña ez da gure egunetakoa. Oraintsu ospatu dugu jaio zanetiko irugarren mendea. Gure asmotako aski bedi bere biziltzeko ari irtenenak jaso eta artzea. Arabarra da jaiotzez, Aramalon, Zalgoa auzoan jaioa, noiz eta 1682ko urtean. Gero badakigu Arrasaten bizi izan zala eta an urte luzeek egin zituela, eskribautzatik bizitzen 1711tik 1752ra. Arrasaten bertan ezkondu zan eta bertan il ere 1759n irurogei ta zazpi urte zituela. Agertu diran artxiboetako agirilak ez digute asko geiago esaten. Baiña gure artean irabazi duen entzutea ez datorko ortatik. Gabon-antzerti baten egillea izatetik balzik. Eta au joan den mendeko azken urtetatik ona

jakin dugu. Eta goizetik gabera, oraintsuarte iñork ezagutzen ez zuen gizon au euskai-teatroren sortzailletzat eman digute askok. Beste batzuek geiegitxo esatea dala usteko dute, lendik ere euskal-teatroa bazela Euskalerrietan, eta Barrutiaren egunetan ere bazela girorik, gutxi bazen ere, Gabon -ikuski-zunetarako bederen. Amaseigarren mendean Oihenartek eman digu pastoralgille il baten berri, eta egillearen izena ere bai: Joanes Etxegarai, Artzain Gorria pastoralaren egillea.

Barrutiaren teatro-lantxo au ez dagiku ez noiz jokatu zen ez iñoiz jokatu zenik ere. Puntutxo bat bakarra argitzen saiatuko gara, noiz idatzia dan, edo beintzat, noizko agertzen dan idatzita Barrutiaren manuskritoa. Puntu au Juan Carlos Guerrak argiturik utzi zuen bere liburu batean: "Los Antiguos Cantares del Euskera" Liburuan. Arritzekoa da gure Barrutia zaleen artean nola ez duen iñork iturri onetara jo. Nere ustez, Aresti zanari siñiste geiegi emateak edo eraman ditu uts orretan erortzera. Azkuen Morfologian aurkitu zuen Arestik Barrutiaren berri eman duen iturri bat: "Los antiguos Cantares del Euskera" dalako ori. Baiña Arestik, liburu ori berak iñon ikusi ez zuelata, zer ondorio atera zuen?: Liburu orrek ez duela inprentako tintarik ikusi "berak esan eta idatzi zuenez. Badirudi beste batzuek ere Arestiren jokabidea erabili izan dutela. Ez dira nekatu Juan Carlosen liburua billatu eta irakurtzen.

Liburu ori, baiña, ez da argitara gabea ez inprenta tintarik ikusik gabea. Euskalerrriaren Alde Aldizkarian agertu zan zatika zatika eta liburu batean gero. Eta ortxe dator Barrutiaren manuskrito osoaren berri. Eta or ikusten dugu noizko gutxienez eman dezakegun idatzitakotzat. Entzun dezaigun Gerra jaunari berari: "Debí, hace ya muchos años, a la amistad fraternal de Don Miguel de Viguri y Balbuena, mi camarada de infancia, el obsequio de un cuaderno manuscrito del siglo XVIII, en que se hallen coleccionados diferentes poesías en vascuence y castellano alguna de las primeras firmada por Pedro Ignacio de Barrutia, escribano de Mondragón durante los años 1711 a 1752, y anónimas las restantes. Encuéntrase entre estas últimas una canción compuesta en honor de San Francisco Xabier con ocasión del recibimiento solemne de su imagen en un puerto de nuestra costa". Ona zer idatzi zuen Guerra jaunak Euskalerrriaren alde aldizkariaren orretan, 1923garren urtean eta gero liburu batean argitaratu. Juan Carlos Guerrak bere ikerketak egiñez, zera aurkituko du: gure itxasaldeko portu ori Lekeitio izan zela, eta Frantzizko Xabierren irudi ori bi senar-emazteak, Jose Francisco Unzeta eta Maria I. Iturraspek eragin zutela, berak il aurretxoan. Senar-emazteok 1750 eta 1751 il zirelarik, manuskrito or⁴, Barrutiaren antzertia zekarren ori, oraintsu Laxaga Jaunak aurkitu duena, emezortzigarren mende erdikoa da, 1750ko urte ingurukoa edo lenxeagokoa, gutxi gorabera. Ez da gauza asko, baiña ez gauza utsa ere. Orra, ezer asmatu gabe gai ontan dakigun guztia. Beste aztarrenik ez zuen utzi ia gure egunotararte Azkuek mende ta erdi geroago argitaratu zuen arte. Orduan iritxi zalo argla ikusteko ordua, baiña ez ospe andirik irabaztekoa oraindino. Zer gerfatu zaio?

Norbait edo norbaitzuk aker pekatari baten billa ibilli zaizkigu emen. Eta ez da pekatariarik billatu bearrik. Eta are gutxiago, pekatari-zako ori pekatari gutxien duena, erru gabekoena badugu. Barrutiaren teatro-lana Euskalzalde astekarian, Euskera utsean gure artean agertu zan lenengo aldizkaria da, iru urteko bizia izan zuena, zabalketa gutxikoa, irakurle gutxi izan zituena. Eta askotan gertatzen dena, eroslerik geiago zituen irakurlerik baiño. Gure bibliotekaetan ez du beintzat aztarrenik esatekorik utzi. Barrutiaren lana nork ezagutu zuen? Azkuek eta beste gutxi batzuk baizik ez.

Donostiar gazte bat, geroxeago fraille egingo zena, Jose Arana, asi zan bein Euskerazko Teatro-lan guztien zerrenda ateratzen Euskal-Esnalea aldizkarian. Zerrenda luzea da. Ez du Barrutiaren aipamenik egin. Aldi berean Orixe idazleak Euskal -literaturaren berri laburra biali zuen sariketa baterako, Euskal-Esnaleak berak argitaratua. Euskal-teatroa, antxiñako pastoral bez bestea, ez zuen ikutu, alde batera utzizuen. Eztakigu Barrutiarena ezagutu zuenik ere. Bear bada, ez. Berrogeita hamar urte luzez, Gerra jaunak bein eta Azkuek ainbat bider aipatuko dute, beste iñork ezagutu ez zutela dirudi.

Nondik ezagutu bear zuten? Eta ezagutu ezik, nondik nora agertuko zitzaion miresle edo goreslerik? Oraintsu berrargitaratu dute Euskalzale aldizkaria: baiña lengo edizioaren alerik leku askotan aurkitzen ote da? Bere aldian Azkue bera saiatu zan ale batzuk, tomotan alkarrekin josirik zabaltzen. Geienak, nik uste apaizen eskuetara jo zutela. Olako ale bat ezagutzen dot nik, nere aide zen apaiz batek gure praille-etxe bati utzia. Olakoxe ale bat erosi nuen nik beste bein, Donostiako liburu-denda batean, Azkuek berak Fausto Ibañez Aldekoa, Euskalzale-ren ongillari eskiñia.

Azkue izan zan Euskalzale aldizkariaren aita eta bera egin zan Barrutiaren antzerkiaren aitaponteko. Berak jarri zion euskal-izena: Gabon Gaberako Ikuskizuna, ez ain zuzen, orain, Arestik gaizki irakurri zuelako zabaldu dana (Gabonetarako Ikuskizuna). Azkuekjatorrago euskeratu zuen erderazko titulua: acto para la Noche Buena. Azkue izan zen Barrutiaren bizitzako aztarrenak ateratzen Jaun Carlos Guerra baiña arago joan zena. Artean Modragoneko eskribautzat ezagutzen zena Azkuek jakin erazi zigun Ararnaioiko semea zela, Zalgon jaioa, aita mondragoitar eta ama aramaoiarraren semea. Askok datook irakurri ez badituzte ere, Barrutiaren berri jakiteko "primera aporfación" delakoa Azkuek eman zuen.

Ala ere, egia da, gure antzerkigille oni ez zaiola argi betea egin, Azkue il eta bost bat urte geroagora arte. Baiña Azkueri berari esker. Azkuek Euskaltzaindiaren Bilboko langelan, berak egunero lan egiten zuen lekuan. An zeuzkan, iru tomotan josirik, bere gaztetako astekariaren iru urteak. Langela artara biltzen ziren euskalzale batzuk an ikusi eta irakurri zuten astekari ori, eta an Barrutiaren lana aurkitu. Eta bi eratara gertatu zen Barrutiaren izena eta ospea zabaltzea. An irakurri du Gabon Gaberako ikuskizuna Bilboko idazle batek, eder eritzi dio, ikutu batzuk egin dizkio, eta Donostian antolatatu duten sariketa batera bialti, Eguberrietako teatro-lanentzako sariketa da, eta leen-saria irabazi du. Irabazleak, Manuel Ziarsolo, **Abeletxe** ezizenez ezaguna denak, bada ezpada ere, ari-mutur bat eman nai izan die epai-maikoei, ea antzik artzen dioten: onako lema au jarri dio berak bialitako antzerkiari: Arrasaten **ditu sustarrak** Maikoek ez dira ezertaz konturatu eta oso osoan eman diote saria berreun urte leenagoko Barrutiari.

Beste talde batek ere irakurri du Barrutiaren lana Azkue zenaren langelako liburutegian, eta ezin siñetsirik gelditu dira nola euki dugun ain aazturik alako idazlea. Eta bazter guztiak beteko irrintzia botatzea erabaki dute. Noiz eta non? Gabriel Aresti izango da oiulari Bilbon 1958an, Barrutiaksaria irabazi eta bi urteren buruan, Euskaltzaindiak, antolatatu dituen Euskalzaleen biltzar-egunen barruan.

Beroa izan zen Arestiren oiva: "Barrutia, i andia az, disfraz ori arturik, baina ala be ezagun az, ezin ukatu leiteke i azala gure prinzipia, gaztelu bedarrean ainbeste denporatan ezkutu en egon dana".

Arestiren oivarekin batera, dator ospe anditan kalera Barrutia. Azkuek bere bizi guztian lortu ez zuena, Arestiren irrintziak egin du. Arrezkero, **Gagon Gaberako Ikuskizunak** lauza bost argitaraldi izan ditu. Oraintsu, edizio kritikoa delako bat ere bai. Idazlearen bizitzako ari nagusiak jakitea lortu da: bataio-agiria, ezkontza-agiria eta eriotz-agiria. Orraitio, bataio agiri guztietan eman digute uts andi bat: batalatuaren izenik ez dute jaso. Semearen izena jan eta aita ta amaren izenak irakurtzen ditugu. Iru-lau aldiz argitaratu dan arren, iñor ez da arduratu oker ori zuzentzen.

Izan dituen edizioez gaiñera, Antzerkia jokatu ere eginda or eta emen.

Donostiako sariketa artako maipurukoek, Abeletxe sarituak eta Arestiren oiuek eta ondo-rengo lanak Barrutiaren izena goi-goietaraño jaso dute. Arestiren oivak, batez ere, egundaiño o iartzuna izan du gure artean. Eta zorionekotzat jo zitekean bai oiuri eta bai orrek ekarri duen ondorio guztia. Arestirekin esan dezakegu gaztelu mear estuan ezkutu en egon den prinzipia izan dugula Barrutia. Baiña Arestik ez du jakin izan bere idazle kutuna gores-

ten, besteren bat belztu gabe. Eta gaztelu medar orretan gure prinzipia euki izan duena Azkue izan zela siñestarazi nai izan du. Eta izugarrizko bidegabekeria izan da ori. Len esan dut: Barrutiak Azkue du aitaponteko, eta aitapontekoak, edozein aitag bezala, ez du itsusi ikusten bere seme edo semetzakorik. Bere bizian zear ainbat aldiz aipatu du Azkuek Mondragoeko eskribauaren featro-lana, eta beti irakurgarrifzat, edertzat, erri-erriaren erraietatik ateratatokotzat goratu du. Arestiren gezurra aspaldian salafua izan da. Antonio Mari Labayen jaunak, berau ere antzerkigillea, ateraldi bat egin zuen Azkue zenaren alde, gelago ere esan zuen, alegia, ez zela Barrufiaren lana munduan bakarra, bazuela eredurik eta susfraitik antziñako Eguberri-feafroan erdaldunen Gabon-antzerkietan. Neronek ere atera nifuen Azkuek an or emen sakabanaturik dauzkan Barrufiaren gorespenezko esanak, baiña oraindik Arestiren aozabalkeriek oiartzun ona dute besterik irakurten edo irakurri nai ez dutenen lumetan. Eta bat ere zalantzarik gabe esango dizue, esatebaferako, Azkuek ez zuela tutik ulertzen literaturgaiefan. Au gauza jakinfzat ematen dute, beste antzeko erausiak bezala. Esaterako, egunotan arlu dugu euskal-aldizkari bat, eta bertan, ia arira ez datorrela, idatzi du batek, Azkuek bere aitaren bertsoak ere, **Parnasorako Bidean** liburuan, oso aldaturik argitaratu zituela. Ez da gaurkoa neronek egindako lan bat, bertan adierazten nuen Azkueren aitag bere bertsoen kopia bat baiño geiago zabaldu zituela, eta semeak, **Parnasoko bidean** argitaratzekoan ez zituela eskuetan guztiak euki, eta asko atera zituela liburu orretan aitag zuzendu -takoak baiño askoz euskera obean egiñak.

Baiña, Barrufiaren auzi onetan, arrigarrienazera da, non oiñarritu nai duten Azkueren aurkako zentzugabeko kritika. Ain zuen oso bestelako ondorioa ateratzeko diran itzetan. Azkuek Euskalzale astekarian aren lanari azpian jarri zion onako oarrea: "Erderazko gauza asko eta erderakada geiago euki arren, guztia nal izan dogu (azaldariak) Mondragoe bertako eskribadu Pedro Barrutla-tarrak orain ia berreun urte egin eban erara" (Euskalzale, 1897, 402).

Nik ez dakit nola ortik atera zuen Arestik eta ortik atera nai duten aren jarraitzaile itsu batzuek Azkuek gauza itxusi ta iguingarritaf zeukala Barrutiaren antzerkia. Geien batez, arkaismo batzuk ikusi zituela eta ez beste ezer onik. Guztia beren irudimenetik atera dute.

Orain, gaiñera, gauzak argiago ikusi ditzakegu. Azplko oar orretako itzetan Juan Carlos Guerrari, Azkuek emandako erantzun garbia daukagu. Onik, Guerrak Euskalzalaren argitaratzeko, kopia Azkueri bialfzean, zer esaten zion? Asterokoan argitara zezala, "aunque sea expurgada de su escandalosos erderazkos", Azkuek zer erantzun dio: "Lo publicamos sin ninguna correccion ni enmienda" (fuera de las ortograficas). Eta gero aldizkarian euskeraz: "Guztia agertu nai dogu Pedro Ignacio Barrutiarrak egin eban erara".

Oraingo maxiatzaileok zer dute orren aurka esatekorik? Ala, textoa garbifurik, txukundurik agertu balu, naiago izango ote zuten? Azkuen itzak atzekoz aurre irakurri, eta atzekoz aurre ulertu dituztela argi dago. Baiña askoren buruetan naste izugarria sortu dutela ere egia da. Gutxl batzuk izan dira gauza auzia argiago ikusteko, eta leen esanefatik atzera egiteko. Nik dakidala batek bakarrik egin du atzera. Aita Villasantek bere **H istoria de ia Literatura vasca** liburuan ala egin du lenengoko edizioan esandakoak bigarrenean kendu eta ixilduz. Beste batzuk leenean daude, ezer zuzendu gabe, Barrufiaren bataio-agiriko okerra zuzendu ez duten bezala.

Guztiak ez dabilta, orraifio, ildo beretik, Eztabaidazko gaiok utzita lan oberik ere egin da. Barrutiaren irugarren mende-urrenaren inguruan batez ere, lan aipagarriak agertu dira, gure antzerkigillearen lana gaztelerriko eta euskalerriko antzerti eta kantekin konparatuz, edo darabiltzan bertso-neurriak aztertuz, eta abar.

Jon Kortazar, Jose Maria Lekuona, eta Andonl Lakarre nabarmendu dira ortan. Barrutiaren iztegia aztertzen Mitxelena (Koldok) egin du saiorik. Orotara artu ezker, Jesus Maria Lasa-

gabaster jaunak Eusko-ikaskuntzaren bederatzigarren Batzarrean irakurritako lana aipagarrietakoa da. Barrutiaren literaturazko balioak bere neurri ta einean jarten jakin du: ez dela Mirandello ez oraintsuko antzerki-joera berrien aurrelari, ez dela gaztelerriko teatro-oirura zaarrekin edo ta Euskalerriko bertakoekin loturarik gabe. Eta Azkue, berak plazara ataratako idazle onen lanak dituen literaturazko balioen leenengo ikusle eta alntzat artzai I letzat eman du. Norbaitek Azkue zenari berea eman eta autortzeko, bazen ordua.

Eta azkenez, orain arte egindako lan guztiai gallurra ipinteko, gaur, Latxagaren edizio berria eta azterketa berria datozkigu.

Eta leenik, edizio berria, egillearen manuskritotik ateratakoa. Orain arteko edizio guztiak ajea zuten. Guerra jaunak ez zuen manuskritoa oso zeatz kopiatu eta ezin izan zeatza kopia orretatik Azkuek atera zuen edizioa Sarriegi gertatzen dana baizik ez da, inprentako iratxoak dirala ta eztirala, uts berri asko agertzen dirala inprentatik. Oraintsu egindako edizioetan berdintsu gertatu da. Bi edizio egin zituen Aresti zanak, bata Euskaltzaindiaren aldizkarian; bestea **Auspoa** saillean, eta ez dakigu zergatik, ez dira berdiñak atera. Oraintsuago egindako iru edizio ikusi ditugu: Euskera aldizkarian agertu zena, (separatan), bat, eta beste **bi, Anuario del Seminario de Filologia Vasca** Andoni Lakarrak emana, eta auxe berau argitalpen kritikotzak Arabako Diputazioak mendeurrenaren oroigarri argitaratua. Ezta ediziorik bata baiño bestea ohea dala esatekorik. Batek ere ez dauka arrazoirik besteal arrika asteko... Gauzarik bitxienak entzun edo irakurten dira askotan. Oraintsu irakurriak gara, asmorik onenaz esanda, Azkuek bere edizioan textoa aldatu edo garbitu egin zuela. Orrenbesteko nastea dabil buru batzuetan. Irakurketa asko argitzeko eta zuzentzeko dator Latxagaren edizioa.

Oiñarte ezagutzen ez genuen bertso bat edo beste ere emanten digu. Oker irakurte batzuk Barrutiak V eta U berdin idaztetik sortu dira. Itz bat edo beste oraindik ere ez dira argi irakurten, gaiñean zirriborroa egin zaielako. Nola nai ere, or dauka nai duenak manuskritoa argazkiturik al duenak alik ondón irakurten saiatzeko.

Eta aukera osoa dauka, baita ere, Latxagak aldamenen jarri dion irakurkera, inprentako letraz jarria, ongi dagoen ala ez ikusteko. Latxagak ez du erreztasunik geiegi izan, utsak zuzentzeko. Urrutiegiz zegoen bera uts guztiak zuzentzen begia zoli erabiltzeko eta gaiñean egoteko. Orri berri baten sartu ditu utsik andienen zuzenketak. Gutxi batzuk gelditu dira, noski, zuzendu gabe. Baiña, berriz esateko, or dugu manuskritoaren argazkia, gezurrik sartzan ez dakiena, irakurle bakoitzaren lagungarri.

Latxagak ez dio ezer berririk erantsi nai izan texto zaarrari: Azkuek jarri zion euskerako titulua ere bera ere ez. Or dago texto zarra bere erderazko zati eta erderakada guztelkin. Ez beza iñork uste Azkuek ortan ezer asmatu zuenik. Erderazko gauza asko ditu. Egia baizik ezta Azkuek esana, eta askok pekatu andizat egotzi diotena. Erderazkoa titulua: Acto para la Noche Buena, erderazkoak jokatzailleen edo iztunen lana zuzentzeko tartean jarritako oar guztiak. Mogel-ek Peru Abarkan egin zuen bezalaxe. Erderazkoak, zati berri batzuei asiera emateko kantatzen diren bertsoak. Erderakadak ere asko dira eta ez gutxi euskera-erderazko nasteak: "Emon, emon, tiene lindo barrigbn"; "no se hizo para los asnos estimakatz dulcea"; "lindo mozo despatxatzeko devino blanco un pichel", eta olakoak. Erderakadak Barrutiak ez ditu sartu, euskeraren eredugarri dauzkalakoan, bai entzuleen irriaren pizgarri baizik. Eta Villasantek esan duenez beste erderakada asko dira antzerklan. Los Castellanismos, de este pieza, en cuanto a materia lexica se refiere, son sobre toda medida. "Historia de la Literatura Vasca", n.º 127.

Ezer ez kentzearren, Latxagak dana eman du Barrutiak eman zuen bezala, ortografian eta itzen banaketan eta guztli.

Barrutiaren texto jatorra ekarte, orixe da gaurko edizioaren baliorik andiena, noski. Baiña

ori naiko ezteela, Latxagak azterketa luzexamar sakonak egin dizkio Gabon gaberako ikuski-zun oni.

Baiña, asiera asieratik manuskritoa aurkitzeak eman zion poz eta zoriona agertu dizkigu. Guerra, manuskrito onen jabea, il zenean, zer gertatu zen aren ondasunekin? Ona Latxagaren iritzia: "Gure ustez, Gerratarrek ontasun geienak erriko alkarlaguntzako etxen bateri utzi zizkion. Erriko elkarte orrek, nunbait, gauza asko saldu egin zituzten eta orrela Gerra sendiaren ontasunak sakabanatu ziran mutur batetik bestera. Bein, Gipuzkoatik urruti liburu billa nebillera, antxen eskeñi zidaten paper bilduma bat. Ori ori egiñak zeuden eta euskeraz eta erderaz idatziak. Berealaxe ikusi nuen lantxo bat izenpetuta zegola, izena ondo ageri zuela. Etzegoen zalantzarik, Jaso nuen eta ondo gordeta daukat. Banekian zer nuen eskuetan. Gero astia bear, nere neurrian lan ori aztertzeko. Aukera ementxe datorkigu Barrutiaren jaiotzaren gizaldiarekin. Zoragarrizko asti luzeak igaro ditut orrialde oiek irakurtzen eta aztertzen. Eta aurkitzaille zoriontsuak erabakia artuko du, Barrutiaren lana dagoen dagoenean, ezertxo aldatu gabe argitaratzea. Eta onar gaur bere asmoa bete, eta berau irakurtzen igaro dituen asti luzeetan egindako azterketaren ondorioak emon ditugu.

Lenengo eta bein, antzerkiaren egillea nor dan argi azaltzen du. Latxagak ez du zalantzarik: Egillea Pedro Inazio Barrutia da, ez besterik. Ortxe ikusten da izenpea eta idazki osoa esku berdiñetik aterea.

Arrasateko eskribau edo idazlariaren muiña, arnasa eta egokitasuna garbi asko ikusten dira. Nor dan idazkiaaren egillea jakiteko, ez daukagu eleberri zoroen atzetik ibilli bearrik. Barrutiak bazekien zer egiten zuen eta garbirik utzi zigun izenpetuta lana... Asieratik izenpetze arte esku bat agerfzen zaigula. Izki berdiñak ditugu, euskara, joskera ta adimena ere nortasun baten ezaugarriak dira. Gaiñera beste iñor etzaigu agertzen antzerki onen egille bezala. Bat eta ura letradua. Badaki idazten, baita ere oldozten eta asieratik bukaera arte kemen berdiña agertzen du. Eta gero "antzerkiaren orrialde guztiak eskribatuaren kutsua ta tankera agertzen digute".

Antzerkiaren egille Barrutia dalakoa orrela sendo jarririk, Latxagak aurrera jotzen du lanaren barrenak aztertzen, antzerkiaren ardatza eta gaia... Belengo misterioa artu du gaitzat eta ez darama gaizki bere aria atalka atalka: Jose ta Mariaren ezkontza, aingeruak Mariari egin dako mezua Salbatzaillea beraganik jaioko zala, Erromako agintarien agindua bakoitzak bere jatorrizko errian izen ematera joan bear zuela, Belenerako bidaldia, belendarren arrera txarra, senar-emazte biai eta Jesus jaioberriari, aingeruak Gloria kantatzen eta artzaiñak Belenen Aurjaioberria gurtzen. Ebanjelioen aritik doa gai au, baiña tartean, antzerkia biziago eta alaiago egiteko, or datoz beste antzerki-lagun batzuk: deabrua, ostalarlaren eta morroien arteko istilluak, parregillearen ateraldiak eta abar.

Parregarrikeriak gora bera dana Belengo misterioa erriari ulerte erazteko eta biotzean sartzeko era egokian lotu du Barrutiak, azken batean antzerkia fede-eskola eta kristau bizitza eskola egilenjakin du. Orfan balio aundia aurkitzen dio azterleriak Barrutiaren lanari. Azteketarik sakonenetakoa egin du, gero Latxagak nola jakin duen Barrutiak antzerki lagun bakoitzari dagokion jokaera eta izketa ematen: Andra Mariaganik asi eta parregille eta deabruetaraño.

Azterketa auetan teologoaren eta arima ziñeneskua ikusten zaio Latxaga jaunari. Baiña Latxaga ez da teologo bakarrik, antropologo ere bai eta alderdi eta ikuspegi onetatik ere egin dio, azterraldi bat antzerkiari. Erri oitura eta errigizon askotxoren ispillu dela aurkitu du. Nonbait Barrutiak oso ongi ezagutzen zuen Mondragoeko erria, ango etxeetako giro eta ango etxeoandree, etxeko jaunen, artzaiñen, tabernetako berriketarien eta abarren izakera ta por-teera, bere antzerkera ekarri ditu, eta azterlanak ortaz eman dituen argibide ta xeetasunak oso ganorazko eta ernagarriak dira.

Izkuntzaren alderdia ere ez du bere azterketa auetan bazterrean utzi. Eta alderdi au aztertu

nai lukeenaren lagungarri or daukagu antzerkiko itz guztien eta aditz forma guztien zerrenda. Orrez gainera, izkuntzaren alderdi au sakonago jorratu du. Barre eragiteko darabiltzan erderakadak alde bat utzirik, euskera erriko eta jatorra omen darabil Barrutiak. Batez ere esaldi trinko kantaz ospatzeko. Giro orren barruan sortua da Mondragoeko antzerkia. Ez du giroa berak sortu. Iñon ere ez dugu ikusten Barrutiaren eregiñik beste iñora zabaldu zanik.

Latxagaren ezetza, ala ere, ez dijoa ortik. Barrutiaren lan bakarra dala esatean besterik esan nai du, alegia, Guerra jaunak Viguriren eskutik jaso zuen manuskritoan, berak gero aurkitu duen manuskritoan, "Acto de Noche Buena" bakarrik dala Barrutiarena, onen letra eta firmaz datorrena. Eta besteak egillearen izenbakoak, anonimoak dirala. Eta bat, Frantzisko Xabierren omenezkoa, Guerrak bere Liburuan argitaratua bera, noski.

Eta onenbestez, nere jardun aspergarri au bukatu bearrean aurkitzen naiz. Eta Latxagak bere lanaren euskerazko zatian azken aldera dakartzan itzekin amaitu nai dut: "Datorren urtean (1981 an idazten duela argi dago), datorren urtean, 1982koan, idazlearen jaiotzaren irugarren gizaldia bai dugu, garai ortarako Euskalerriko liburu apaletan egon bear luke. Ameniketa osoan ezagutu dezaten zabaltzekotan gabiltz". Kontuak oker ater zaizkio idazleari. Baiña, gaur bai, gaur noizbatean aren asmoai iritzi zaie betetzeko ordua. Latxagaren bitartez, gaur edizio berri jator onekin, Barrutiari esaten zaio arako Etxeparena": Barrutia, jalgi adi plazara, abil mundu guzira". Esker eta zorion Latxaga Jaunari. Zorion Barrutiazaleei.

LATXAGA

OCTO.ara hocii c PnQ f



J. L. de Barutia

ONDARROA TA INGURUKO TOPONIMIA

Gaitez da Ondarroa inguruan lurren jaubetasuna zeaztutea. Ondarru eta Berrittu idiak idia arkittu, esan izan da iñoiz. Gai onetan egokiago litzake, ari topeka errez egiten dala esatea, toki eta leku asko alkarri topeka dagozalako, batzutan batana dalakoan bestearena gertatzen dalako, eta bestetan etxe burua aginte bateko izanarren, inguruak besterenak gertatzen diralako.

Ba dagoz baita erriz batanak eta elizaz besterenak diranak be. Orrek, nai ta jaubetasuna ukatu bear, bedeinkapenatarako ba dauka bere etxekotasuna. Alaz eta, askorentzat ba dauka bere duintasuna, eleiz eskubide, sepultura eta abarretan orrelako deiturak agertzen diralako.

Origaitik, nai ta Berriatua 'ko erdi inguruan sartu ez, Ondarroa eta inguruko toponimia deitzea egoki deritxat.

Onetan Elizalde zanak agertu zitun izen batzuk RIEV aldizkarian, baiña ingurua zeaztasunez arakatu bariK. Ba dirudi bere zeregiñean ebillala eskuratutako agiri eta paperetan aurkituak agertu zitula, berak agertutakoen gain izen eta deitura ugari billatzen diralako, asko sakondu barik.

Nire adiskide dan Andoni Basterretxea 'k be zaletasun bizia euki dau orretan, eta iñoiz egin diran mapaetan bere eskua edo aolkaritza igarten da.

Ez dot ukatzen danekaz baliatu naizenik, euren gain nire alegiña geituz, eurak sartu edo eskuratu ez dituen toki eta inguruetakoko utsunak nire zaletasun eta arretaz beteaz.

Aranguruko toki, leku eta auzoetan irakurri edo entzunaz billatzen diran deituren zerrenda bat:

Aanekua. —	sagastia.	Aldeko.—	etxea.
Abade-sagasti.—	sagastia.	Aldeko-azpi.—	tokia.
Abade sailla.—	soloa.	Alfonsokua.—	etxea.
Abaro.—	tokia.	Alojaro.—	soloa.
Aboitiz.—	etxea.	Allanda. —	etxea.
Agirrekoa.—	etxea.	Allanda baso.—	basoa.
Agirre-Iramengo, —	illobia.	Allanda buru.—	mendia.
Agirrekoa-lparkale.—	illobia.	Allandazabal.—	tokia.
Aiardia.—	illobia.	Alliri. —	etxea.
Ainketa, —	soloa.	Allirizar. —	etxea.
Aipasolo.—	etxea.	Alliri alde.—	ingurua.
Aizburu.—	tokia,	Allukiz.—	baserria.
Akilla.—	etxea.	Allukiz solo.—	soloa.
Akillalde.—	tokia.	Altasjarra.—	sagastia.
Akillamendi.—	mendia.	Altzatei.—	soloa.
Aldapi.—	tokia.	Alzeluz.—	sagastia.
Aldatza.—	tokia.	Amesti. —	soloa.

Amugingoa.—	etxea.	Arratieta.—	tokia.
Anakabe.—	etxea.	Arrlaga.—	etxea. (Arrixa).
Anakabealde.—	ingurua.	Arriandietia.—	Bidea eta ingurua.
Andabide.—	bidea.	Arriandleta-azpi.—	tokia.
Andiketxe.—	etxea.	Arrigorri.—	etxea eta tokia.
Andikosolo.—	soloa.	Arriolakua.—	illobia.
Andonegikoa.—	ill obla.	Arrixafde.—	tokia.
Andramari erreka.—	erreka.	Arrixa-erreka.—	errekatxo.
Ankasoloa.—	soloa.	Asensiokoa.—	etxea.
Ansolakua.—	etxea,	Askaburu.—	tokia.
Antigua.—	eleiza.	Astelarra.—	sagastia.
Antigua-azpi.—	ingurua.	Asterrika.—	auzoa.
Antiugane.—	ingurua.	Astondo.—	tokia.
Antxikoa.—	etxea.	Ategiuren.—	etxea.
Antzone.—	etxea.	Atesare.—	tokia.
An'zosolo.—	mendia.	Atesarealdi.—	toki-ingurua.
Antzosolo-erreka.—	errekarte.	Atxabal.—	tokia.
Añorga solo.—	soloa.	Atxabaleko erreka.—	errekatxo.
Apallukoa.—	etxea.	Atxabide.—	bidea.
Apallu-torrea.—	etxea.	Atxazpi.—	Bide ta tokia.
Arandixo.—	sagastia.	Atxerdixe.—	tokia.
Aranzibla,—	(Antxubixa)	Asondo.—	etxea.
	torrea.	Atxondope.—	soloa.
Arbide.—	itxas eaaleko	Alxukarro.—	etxea.
	bidea.	Aulaso.—	soloa.
Aretxagakoa.—	illobla.	Ausolo.—	soloa.
Argingoa.—	etxea.	Ausolo azpi.—	tokia.
Arimeltz.—	sagastia,	Axpea.—	etxea.
Aristitsu.—	mendia.	Azeri zulueta.—	basoa.
Aristixe.—	basoa.	Azkarate.—	soloa.
Armenzakoa.—	iuobia.	Azkarra.—	etxea.
Armukatx.—	tokia.	Azkonazulo.—	soloa.
Arkaitz buru.—	tokia.	Baltzola solo.—	soloa.
Arkatza.—	tokia.	Baraiku goiko.—	etxea.
Arlaban.—	bidea.	Baraiku beko.—	etxea.
Arta.—	tokia.	Baraiku mendi.—	mendia.
Artabide.—	bidea.	Baranigo,—	(Agiri batzuetan
Artadialde.—	tokia.		Baraiku etxearen
Artaleku.—	tokia.		deitura).
Artape.—	tokia.	Basotxiki.—	basoa,
Artatxute.—	tokia.	Bazterretxe.—	etxea.
Arnobar,—	tokia.	Beaskoa.— Biskoa.—	etxea.
Arteta.—	etxea.	Bekoetxe.—	etxea.
Artetagain.—	tokia.	Beko solua.—	soloa.
Artetako arria.—	tokia.	Beazlxe.—	soloa.
Arrabal txikiña.—	auzoa.	Belaotza.—	etxea.
Arrandola.—	basoa.	Beltxorrenekua.—	etxea.
Arraubeta-Arraueta.—	etxea.	Beratekoa.—	tokia.
Arraubeta txiki.—	tokia.	Bergantxo.—	tokia.
Arrazkoaga,—	illobia.		

Bespe.—	tokia.	Errenderi.—	auzoa.
Bespeko tontorra.—	mendixua.	Errezabal.—	soloa.
Besteetxe-Asterrika.—	etxea.	Errotaburu .—	sagastia.
Bidarte.—	tokia.	Estakona.—	etxea.
Bidarteko.—	ermita txikia.	Etxaurre.—	zelaia.
Bidarteena.—	sagastia.	Etxeaurreko arkazixe.—	arboladia.
Bidebarripea.—	soloa.	Etxeazpi.—	soloa.
Bidebarrieta.—	soloa.	Etxaniz.—	sagastia.
Bidebarrixe.—	bidea.	Etxaxe, Etxax-zarra.—	antxinako nasa, molla.
Bideburua.—	sagastia.		soloa.
Bidestu.—	bidea.	Etxealboa.—	etxea.
Billagarai.—	sagastia.	Etxebarria.—	etxea.
Bitxagarai.—	soloa.	Etxeandia.—	sagastia .
Boluntariena.—	sagastia.	Etxeandia .—	(errekatoa).
Burgaña. —	etxea.	Etxeandiko erreka.—	bidea.
Burgañakoa.—	soloa.	Efxeazpiko estratia.—	soloa.
Burgo.—	etxea .	Etxeazpiko sakona.—	arboladia.
Burgo mendi.—	mendia.	Etxeburuko areztia.—	soloa.
Buztiñagakoa.—	sagastia.	txeoste.—	etxea.
Buztindia.—	sagastia.	Etxetxu .—	illobia .
Buztinduitza.—	sagastia.	Etxezarkoa .—	basoa.
Buztinzuria.—	sagastia.	Etxondoko basoa.—	
Dubelarikoa.—	etxea.		
Eguren.—	etxea.		
Egiguren.—	etxea.		
Eizmendi bekoa.—	etxea.		
Eizmendi -Txakartegi. —	elxea.		
Eizmendi-Zabala.—	etxea.		
Elantxo.—	sagastia.		
Elixaurre.—	gaztarTadia.		
Elorrai.—	mendia.		
Elorriaga.—	etxea.		
Elorriagakoa.—	illobia.		
Emendiko erreka.—	sagastia eta etxea.		
	potsua.		
Eraleku.—	soloa.		
Ergez alde.—	soloa.		
Ergentiz.—	soloa.		
Eriños 'e.—	zelaia.		
Erleegi.—	ill obia.		
Erletegia.—	soloa.		
Erube solo.—	soloa.		
Erramukoa.—	ill obia.		
Erramuko zelaia.—	mendia. (Ospitalarena)		
	auzoa.		
Errebal aldea.—	sagastia.		
Erreka agirre.—	sagastia.		
Errekpndi.—	erreka.		
Errekatxueta.—	sagastia.		
Errementarikoa.—	etxea.		

(Jarraitzeko)
Augustin Zubikarai



1 979'ko epailla 'ren aurreneko egunetan asi zan EUSKERAZAINTZA deitura one-tako sail bat argitaratzen Donosti eta Bilbo "ko egunkarietan.

Jesús Eloseggi zanak asmatu zuan onelako zerbit.

Gero, Felipe Yurramendi eta Ambrosio Zatarain arduratu ziran onetaz. Baiña arek beste arduraz batzuk aitzean, Zatarain da tarteka tarketa agertzen dan sail onen arduradun bakarra.

Egunkarietako sailletan igarten da itz bakoitzari bere zeaztasuna billatzen ainbat iztegi erabilten dirala, itzen esan-nal jatorra aztertzen.

Onetan Euskerazaintzaren asmoa euskeraren bizi-eskubideak zalintzeko kezketan oiña -rritzen da.

Euskerazaintza Euskera bateratuaren aldekoa da ezpairik gabe, baiña erri euskeraren buztarritik bere burua askatu gabe.

Euskeraren Erri Akademia dan ezkeru, erri euskeraren serbitzu ta laguntza zuzenean jar-dungo da.

Ara emen, beste zenbakietan lan au burutzen joateko asmoakin, azterketa sakonak egin ondoren, zeaztu eta agertutako lenengo 75 erdal itz edo deituren euskal ordekoa.

1. Oficina	IDAZGELA
2. Asamblea	BATZAR
3. Manifestación	KALE-AGERKUNDE
4. Medios de comunicación social	GIZARTEAREN MEZU-BIDEAK
5. Huelga	OPOR
6. Obediencia	MENPETASUNA
7. Cultura	JAKINTZA
8. Consejo General Vasco	EUSKALERRIKO AGINTZARITZA NAGUSIA (EAN)
9. Procurador	ZAITAILLE, ALDUN, ORDEZKARI, AUZIKETARI, ARDURADUN
10. Registro de la Propiedad	ONIBAR JABETASUN-IDAZGUA
11. Autopista	BIDEGUREN
12. Carretera de circunvalación	INGURU-BIDEA
13. Variante	ALBO-BIDEA
14. Empresa	BALTZU
15. Proposición, propuesta	SALO
16. Jubilado	ZAARSARIDUN
17. Contabilidad... KONTUIZTIA ta ondoriozko KONTULARITZA, KONTU-IDAZKIAK, KONTU-IDAZKETA	
18. Bolsa de acciones	AGIRI-MERKATUA
19. Polígono Industrial	OLAETA
20. Polideportivo	KIROL -ENPARANTZA
21. Atletismo	BAKAR-KIROLTZA
22. Tamborrada	TANBORRADA
23. Recuper. de la dignidad del Pais Vasco	EUSKALERRIAREN IZEN ONA BARRITZEA
24. Conciencia ciudadana	ERRITAR GOGOA
25. Gobierno de paz y justicia	PAKEZKO ETA ZUZENTASUNEZKO GOBERNAKERA JAURBIDEA
26. Parque zoológico	PIZTI-ESPILLA

27. Negociación del convenio	ITUNKETA
28. Atraco-atracador	KALE-LAPURRA, EBASLEA, LAPURRETA, EBASKETA
29. Inversión	DIRU EZARPENA
30. Correlación de fuerzas	INDARREN ELKAR ERAGIÑA
31. Quiniela	KIROL APOSTUA, OSTIKO KIROL APOSTUA
32. Servicio publico	BALTZA-SERBITZUAK
Suministros públicos, abastecimientos publicos	BALTZA-ZUZKIPENAK
33. Idea	GOGO-IDURI, BURUTAPEN , ASMO, OLDE
34. Sofisticar, sofisticado	KUSKARRO
35. Biblioteca	LIBURUTEGIA, LIBURUTZA, LIBURU-ARASA
Bibliotecario	LIBURU-ZAIÑA
36. Presupuesto	EGIKIZUN -KONTUAK , ASMO -KONTUAK
37. Molestia,molestar	NEKE,JASAPEN,MIÑ,ATSEKABE,ASALDU,ASARRE,GOGAIPEN ,ONDO EZ, KEZKA, NAIGABE
38. Gestoría, gestor	ARARTEKARI-BALTZUA (Empresa), ARARTE KARI-IDAZGUA (Oficina)
Gestor	ARARTEKARI
39. Secuestro	GIZA-LAPURRETA, GIZALAPURTZE, GIZALAPURKETA
Secuestrador	GIZALAPURRA
40. Avenida, Bulevar	KALE NAGUSIA, ZUGAIZPIDEA
41. Incompatibilidad	ALKARTZE-EZIÑA, BATERATZE-EZIÑA
Incompatibles	ALKARREZIÑAK, ALKARTU EZIÑEKOAK, BATERATU EZIÑEKOAK
42. Trabas administrativas	AGINTARITZA-ERAGOZPENAK, KARGUDUN 4(ORAPILLOAK
43. Publicidad (conocimiento publico)	EZAGUPENA
Propaganda	IRAGARKETA, ZABALKUNDEA
Empresa publicitaria	IRAGARKETA-BALTZUA
Medios publicitarios	IRAGARPIDEAK, ZABALPIDEAK
44. Sintonía (igualdad de tono)	TONU-BERDINTASUNA
Sintónicos (de igual tono)	TONUKIDEAK
Sintonizar (igualar las alturas de sonidos)	TONUKIDETU
Sintonizar un aparato de radio con una frecuencia determinada	Irraitailua sarritasun bati EGOKITU
45. Auto-servicio (fienda)	NORBEREZKO DENDA
Auto-servicio (restaurante)	NORBEREZKO JATETXEA
46. Vigente	INDARDUNA
Estar vigente	INDARREAN EGON
Perder vigencia	INDARRA GALDU
47. Policía nacional	ERTZAIN
Policía de Estado o nación	ERTZAINNTZA
Policía de ciudad	URIZAINNTZA, IRIZAINNTZA
Policía de carreteras o de tráfico	BIDEZAINNTZA
Guardia urbano de tráfico	KALEZAIN
Guarda jurado de fábrica (US. company policeman)	LANTEGIZAIN
Vigilante	ZAINZAILLE
48. Aparcamiento (estacionamiento)	ORGA-TOKI
Garaje, garage	ORGATEGI
Conductor, chauffeur	ORGAZAIN
Camion	ZAMA-ORGA
Estación de servicio	ORGA-ORNITEGI
Taller de reparación de automdviles	ORGA-LANTEGI
Mecdnico de automdviles	ORGALARI
49. Fuegos artificiales	ALDE-SUAK, IDURI-SUAK
50. Ingeniero	EGI N K I N
51. Acumulador el ^ctrico	TXIMISTA-ANDELA
52. (Zezen suzko?)	(SUZKO ZEZEN)
53. Rollo de película fotogrdfica	ARGAZKI -MINTZA+(URUBILLA
Rollo de película	MINTZA-KURUBILLA

54. Aeropuerto, aeródromo	EGAZKIN -ZELAI
55. Pista de aterrizaje	EGAZKIN BILLARTA
56. Nervio	ZAINTXURI
Sistema nervioso	ZAINTXURITZA
57. Cambio de sentido (camino para invertir el sentido de marcha)	ITZULBIDEA
58. Chiste, chascarrillo	TITXO, SESTO
59. Salidas	DOAZENAK edo DOAZENENTZAKO ATEA
Llegadas	DATOZENAK edo DATOZENTZAKO ATEA
60. Campaña	(L. aldeko EKITALDIA)
61. Transfusión (de sangre)	ODOL-SARTZEA
62. Refugiado	IGESLIARRA
63. Conforme (de acuerdo)	EDERTO, EDERKI
64. Crédito (derecho a recibir dinero)	ARTZE
Crédito (préstamo, etc., de crédito)	JESAMEN
Crédito (reputación)	IZEN ONA
Crédito (fama de honradez)	ZINTZO AIPU
65. Archivo (conjunto de documentos)	AGIRITZA edo AGIRI BILDUMA.
Archivo Lugar para documentos)	AGIRITEGIA
Archivo (archivador, armario)	AGIRI ALASA
66. Previsión (visión anticipada)	LENDIKUSTE
Previsión social	GIZARTE-LAGUNTZA
67. Consumo, consumidor	IGAPEN, IGATZAILLE
68. Playa de la Concha	BAIABIL ONDARTZA
69. Éxito (resultado)	ONDORIO
Éxito (triunfo)	GARAIPEN
Éxito (demanda)	SALBIDE
Éxito (buena acogida)	ARRERA ON
70. Gasto (a cambio de algo)	KASTU, GASTU
71. Raro (poco frecuente)	BAKAN
Raro (escaso)	URRI
Raro (sorprendente)	ARRIGARRI
Raro (curioso)	BITXI
Raro Olamativo)	NABARMEN
Raro (extraordinario)	APART, BIKAIN
72. Especialidad (particularidad)	BEREZITASUN
Especialidad (producto especial)	GAUZA BEREZI, SALGAI BEREZI
Especialidad (rama del saber)	ATAL -JAKITE
Especialidad (especialista, técnico)	ATAL -TEKNIKU
Especialidad (trabajador)	ATAL -LANGILE
Especialidad (esp. sin especificar)	ATALKARI
73. Despedir (arrojar, echar)	BOTA, AURTIKI
Despedir (enviar, despachar)	BIDALI, IGORRI
74. Registro (acción de registrar)	MITAKETA
Registro Lugar donde se puede registrar)	MIRATZE-ZULO
Registro (ladrón o matrícula)	LERROKUNTZA
Registro (protocolo de notario o registrador)	ESKRIBAU-LIBURUTZA
Registro Lugar donde se registra)	LERROKATEGI
Registro (asiento que se efectúa)	LERROKAPEN
Registro (cédula de haber registrado)	LERROKAPEN-AGIRI
Registro (libro de noticias o datos)	OROIKIZUN-LIBURU
Registro (de una voz o instrumento)	SOIÑU-EDAPEN
Registro (regulación apertura de gases)	KEBIDEATAKA
75. Radio (revisión, receptor)	IRRATI, IRRATAILLU
Radiodifusión (audio)	ENTZUTE -IRRATI (ENTZUTIRRATI)
Televisión	IKUSTE-IRRATI QKUSTIRRATI)

EUSKERA BIZKAIAN

Euskerea izkuntza zabala da eta bat izanik era askotara erabilten dabe euskaldunak. Eta orixe da, izan be, euskerearen eskutukirik aundienetarikoa bat: Erakunde bakarra euki arren, errialde bakoitzak bere erara beteten dauala erakunde ori. Zuberoko 'ko euskerea eta Bizkai 'koa alde batetik oso ezberdiñak dira, baiña beste alde batetik bardin-bardiñak.

Zelakoa dan

Bizkai 'ko euskerea benetan ederra da. Ederra aditza, ederra itz-osotzea, ederra iztegia, ederra joskerea... Aditza, izkuntza-arloan ikutu bat egiten dauanarentzat arrigarria benetan, esaldiaren zati guztien ezaugarriak zelako egokitasunagaz aditz-barrura sartzen dauzan ikusi ezker. Itz-osotzearen edertasuna adierazteko gogoratu mugatzaillea edo erderazko "artikulua" zelan ezarten dautsen itzal ikustea, zenbat arau eder! Iztegia sarritan erri-jakintzaren ondorena izaten da eta orretan bizkaiko euskerea oso aberatsa da, naizta itz asko galdu izan, geuk batzeko ardura larregi artu ez dogulako eta jakintza aldatu jakunean, lengo itzak itzi eta barriak erderatik artu; eta joskera-arloan galdegaia ondoen erabilten dauana Bizkai 'ko euskalkia dala iñok ez dau ukatuko eta erabilten orretan, gaiñera, euskaldunen barruko esan-gurea agertzeko beste euskalkiak baiño era ugariagoak daukaz.

Tamalgarria, eta sinistu-eziñeko neurrian tamalgarria, batu-egilleak onetan egin daben utsa, olako aberastasunak zearo baztertu dabezenean.

Tamalgarria, benetan, alde guztietatik berba egiteko era txiro bat agertuz, baizkaitarrai sartu dauskuen lotsea; ain euskalki ederra eukirik, gure euskerea txarra dala ta berba egiten be lotsa izateko barru-ikerea sartu dauskue. Geurea aurrera ateratzeko zerbait egin bearko dogu.

Gure euskalkia, beste euskalkirik geienen antzera, erderearen mugan dago. Gipuzkoarrak dira arrisku ori ez dauken bakarrak. Eta orrexegaitik, mugan gagozelako, gizaldien joanean eta izkuntza-arloan burrukalaria izan bear. Burruka egin dogu latiñaren aurka eta berba asko artu be bai, burruka zelten izkuntzaren aurka, eta zerbait geratu jaku, burruka Santander-aldetik eta Burgos-aldetik sartu nai jakun erromantzearen aurka, beti burrukan. Baiña ez begie alztu Euskalerriaren barruan eta ondo zainduta bizi diran euskaldunak gure zaurtai eskerrak bizi dirala, Naparroan eta Araban, geienez, euskera galdu egin dala, ez gitxiago iparraldean, baiña Bizkaiak eutsi egin dautsola izkuntzari, zauriak artu eta gorputz atalak galdu izan arren. Zauriak artu diñogu, erderearen ikutua bizkaierearen barruan bizia izan dalako eta gorputz atalak galdu esan dogu, Autrogoiak ibaiaren ezker-aldian antxiña galdu ebelako euskerea eta Bilbo bera ta errekartea or daukagulako, gizaldietan burruka egin arren, gaur-egun euskerea zearo galduta.

Baiña Bizkaia'n bizi da euskerea. Itxas-errietan (Bermeo, Lekeitio ta Ondarroa erri aundiak eta euskaldunak dira) Baserrietan (Mungia, Durango, Markina, Gernika... erri aundiak eta euskaldunak dira, eta zenbat erri txikitant!).

Egin dogun burruka ori garratza ta odol-jariozkoa izan arren, gogotsu oiukatu geinke: Gaur euskaldunik erdiak bizkaieraz berba egiten dabe. Baita barru miñik aundienegaz esan geinke beste au be: Bizkaitarrok ez dogu merezidu ain lotsagarriro izkuntza-arloan alboratuak izaterik!

Betiko arriskuak

Eta burruka ori gaur be aurrera doa.

Alde batetik betiko arriskuak daukaguz: Erdeldunak mugan, Santander, Burgos eta Euskal-erriaren barruan Araba ta Errekortea. Zauriak artzen dagoz gaur be Legutiano-aldean, Orduña-aldean ibaiaren eskuma-aldean diran erriak.

Baiña euskerearen arerioak, Euskalerra osoan ta geiago Bizkai 'n, etxe-barrura sartu jakuz: Kanpotik etorriak dira. Oneik geienak euskerea ikasi eta indartzen lagundu bearrean, erdere sartzan dauskue. Naikoa da batzoki baten erdeldun bat izatea, jeltkide guztiak erdera egin-bearra izateko, naikoa da eleiz-batzar baten lekaike erdeldun bat izatea, eleiztar guztiak erdera egitera beartzeko. Eta arlo onetan, lekaikeen jokabidea salatu-bearrekoa da: Aintbeste lekaike euskaldun izan arren, Euskalerrira erdeldunak bialtzen dabez, euskaldunak ostera erdel-erria edo kanpoetara... Negargarria!

Arrisku barriak

Esandako arrisku orreik, betikoak dira. Beste batzuk be bai, esaterako alboko izkun 'zetatik itzak ain ugari artzea. Baiña antxiñako arriskuak zer egin daben ba-dakigu. Ez dabe lortu gure Bizkaiko errietan euskerea galtzea, naizta kalte ikaragarria egin. Arrisku orrein aurka zaindu dogu izkuntza.

Baiña aspaldion arrisku barriak sortu jakuz eta ortik dator gure bildurra. Eraso barri onein indarra lengoena baiño aundiagoa da, arerioak lengoak baiño ugariagoak eta biziagoak dira. Urtengo ete dogu bizirik? Ez dakit ba...

Zeintzuk diran arrisku barri oneik?

Liburuak eta izparringiak. Ez dira gaurko gauzea, baiña gaur zelako indarra artu daben ba-dakigu, baita zelako euskerea erabilten daben be. Gure izparringietan Bizkai 'ko euskerea sartzeko, adiskide batzun laguntza bear izaten dogu, eta berez izparringietan eta liburuetan gurea ez dan euskera lotsagarri bat sartu dauskue, Bizkai 'ko erriak iñoz egingo ez dauan euskerea.

Urrutikuzkiña eta irriatik indar aundia artu dabe eta orain-arteko arerioak sartu ez diran lekura sartu dira, euskerearen santutegira bertara, etxeetara ta sendi-bizitzara esan gura dogu. Eta Bizkai 'ko euskerea egiten dauan irriak bakarra, Erri-Irratia da. Baiña urrutikuzkiña, telebista, Bizkai 'ko euskereak gaur douan areriorik aundiena da. Au zori txarra! Euskaldunen aurka egin bear burruka geure euskerea gaizkatzeko eta geure aurka egiten dan burruka ori egiteko geure diruaz baliatzen dira!

Eskolak dira urrengo arerioa. Itxaropena geunkan ikastolak eta eskolak eta ikastetxeak izango zirala gure izkuntza aurrera aterako ebenak, askatasun-eguna sortzerakoan. Etorri da askatasuna, zelakoa edo alakoa, eta ona emen ondamentia: Sartu dauskue ikastegietan ulertu-eziña dan euskerea, batu esaten dautsoena, eta orra or gurasoak, betiko guraso euskaldunak, seme-alaben euskerea ulertu-eziñik eta alkar ulertzeko erderaz berba egin-bearra

Eleizea. Zer esango dogu Eleizeari buruz? Orain-arte ortxe zaintzen dogu ondoen bizkaierrea, baiña ondo dakigu zelako burrukak egin bear diran! Adibide bat ipinteko, Bergara 'n egin zan eta batuaren amargarren urtea ospatzeko izan zan 1978 'ko batzarrean Etxezarreta 'tar Eustasio abade jaunak parroketan agiriak idazteko liburuak batuz idatziko zirala esan euskun eta naizta gu gogor jarri bere aurka, or daukaguz parroketan agiriak idazteko liburuak batuz eginda eta gu eleiz-agiriak batuz egitera nai ta nai ez beartuta. Bermeo 'n liburuak gertatu genduzan bizkaieraz agiriak idazteko, Ondarroa ko abadeen jokabideari jarraituz, baiña iru liburu orreik oso karuak izan ziran, jakiña.

Dana dala, arlo onetan Eleizeagan daukagun itxaropena ez dogu oso-osoan galdu.

Batuaren arriskua

Bizkai 'ko euskereak izan dauan erasorik ikaragarriena, euskaldunakandik datorren eraso da, batuaren eraso. Gai oneri buruz zerbait esanda geratzen da. Parkatu-eziña da, zuzentasuna eskatzen dauan arazoa da, euskaldun anaiak onetan egin dauskuen kaltea, errudun nagusi Euskaltzaindia dala: Euskera batu-antzeko bat egitea erabagi dabe, Bizkai 'ko euskerea zzero baztertuta.

Eta maltzurkeriz gaiñera. Batua elerti edo literatura lanetarako ez zala, erriari berba egiteko ez zala, ikastetxeetarako ez zala eta olako gauzak esan euskuezan. Ez geuntoen sinistu, baiña or daukagu batua danera sartuta. Eta euskera egokia izan ba'litz, gaitz-erdi, baiña zelako euskerea! Eta ori liburuetan, izparringietan, aldizkarietan, urrutikuzkiñean, iragarkietan, eskoletan, itzaldietan, lkastetxe Nagusian, olerkietan, bertsoetan, liburuetan eta non ez? Ba-dakigu gaur non dagozan eta zeintzuk diran Bizkai 'ko euskerearen zapaltzaille-rik aundienak, zori txarrez, geure anai maitzurak.


Itxaropen-izpiak

Bizkai 'tik egoera ori ikusita zer egin? Pikua are-arteana sartuta eriotzeari itxaron? Ez. Ez orixe!

Bizkai 'ko euskereari laguntzeko gogoia pizka bat agertzen da aspaldion eta gogo ori indartu egin bear dogu: Or daukagu EUSKERAZAINTZA - ERRI -AKADEMIA, or baita Bilbo 'n antxiña sortua dogun EUSKERAZALEAK eta antxiñakoa izan arren oraintsu indar barria artu dauan eta Lekuona 'tar Manuel sortzaille izan eban KARDABERAZ. Ez erakunde batzuk be zerbait emoten dabe onetarako, Egia esan, gaur erabilten diran dirutzakaz parekatu ezkeror ez dira jatordu bateko ogi-birriñak baiño.

Guda au galduta daukagula esaten dauskue eta gure erantzuna au izaten da: Lenago be gudak galdu bakoak ez gara, baiña guda galduen ondorena zein izaten da?

OLAZARtar Martin'ek



LIBURUAK

"DENBORA BERRIETAKO ELIZA"

LIBURUAREN AURKEZPENA

Donostia. 1987-IV-24

A

ndre-jaunok:

Liburu baten aurkezpena egiteko bildu gera gu gaur emen: Denbora Berrietako Eliza (Argikuntza, Jakintza Berriak, Iraultza) du izen-buru idazti onek, bosteun eta berrogeita amabi orrialde aundi-beteak osatzen dutena.

EUSKERAZAINTZA ko illeroko aizken billeran aukeratu ninduen aurkezpen au zuei egiteko. Bixente bezala, neu ere apaiza naiz eta idazlea.

Liburu bat ez da zugaizpean sortzen dan perretxikua. Perretxikoa ba 'litz, kiloko ontto beltza eta mardula litzake. Onttoa berez sortzen da; liburua, ordea, beste baten eskuz eta adimenez.

Kilo bateko liburu mardul au ez da bakarra, sorta baten bigarrena, baizik. San Iñazloaren Denborako Eliza du izen lenengoak eta lareun eta ogeita amar orrialdek osatzen dute. Urtebeteko epea bien artean eta egillea, berbera.

ELEIZ-EDESTI-SORTA saillekoak dituzu biak eta beste iru ere laister agertuko zaizkigu egille berberaren eskutik, sail onetan.

EUSKERAZAINTZA k argitara ditu biak eta baditu beste idatzi batzuek ere argitara emanak. "Mirri"k, Euskadiko paillasoak, EUSKERAZAINTZA ren bizkarretik txistea egin zigun Euskal-Telebistan, martxoaren 25"eko domeka arratsaldean. Txiste-gai baiño geiagotarako ere bagerala, uste dut.

Nor da liburuaren egillea?

Latiegi 'tar Bixente (Euskerazaintzakoa) dlo idaztiaren azalak. "Bixente" izen aukerakoa dezu. Irugarren gizaldiaren aizken-aldeko martiri euskaldunaren izena. Diokleziano 'ren erasoan erail zuten Cesar-Augusta 'ko diakono zalarik. Bere gotzaia "ignarus linguae", "mintzaira gabekoa", zalako, diakono Bixente erabiltzen zuan itzultzaille Jainkoaren itza erriari banatzeko. Euskalduna zan Bixente ura, gurea bezala. Gurea Latiegitarra degu, Euskal-erriaren sustraitua. Errotik euskaldun. Ez edonun errotua, Gipuzkoan baizik; Tolosan baizik.

Amabost milla urtetik onerako sustrai luzeak ditu euskaldunak European. Bere mintzairak ere baditu millaka batzuek. Orduko Franko-Kantauri-Kultura begien aurrean ipiñi ezkeroz, auxe ikusten degu: Asturias, Santander, Bizkaia, Gipuzkoa, Naparroa, Pirenee-mendiak eta Garona ibaitik gora, Dordoña 'rarfeko tartean, eunka daudela leizeak gure arbasoen egoitza izanak. Oien arteko askoetan utzi dizkigute marrazki margodunak eta xixilikatuak, geure aurrekoen kultura berezia osatzen dutenak eta garai bateko Europa ren sustraktum izana da kultura au.

Geure gaurko erri zaarra, kultura onen ardatzean dago, ertz zabalak galdu baditu ere: Asturiastik Bizkaira eta Naparroatik Dordoña 'ra bitarteko egalak dira galdu ditunak. Alaz ere, dirau oraindik erriak kultura zabal orren biotzean. Ez du nortasunik galdu, mintzairari eskerrak.

Mintzairak, ordea, oraindik Erri zaar onetan diraunak, berak ere egalak galdu ditu eta Erriaren biotzean kokatu da. Euskalerria Franko-Kantauri-Kulturaren biotzean eta ardatzean ba "dago, Tolosa biotz orren biotzean eta ardatz orren ardatzean daukazute. Ez da bada arritzeko Tolosa-ingurukoa ba 'da Euskerarik jatorrena.

Bizkaiak, Arabak, Naparroak, Lapurdik eta Zuberoak, bostak dituzte beuren egalak erderaren lurraldeekin bat eginda. Gipuzkoa, berriz, bosteen erdian gelditu da gordeta mendeetan zear, guztien biotzaren antzeko. Baiña, guzti oien ardatzik ardatzeena Tolosa ingurua da: Tolosa 'tik Aralar aldera. Ez da kasualidade bat Orixe ingumari oietan sortua izana, Euskeraren gordelekurik ziurrena eta garbiena toki ori izan bait da beti.

Bazuten, beraz, arrazoirik Azkue eta bere Euskaltzaindiko lagunek Gipuzkoako euskera batasun-biderako aukeratu zutenean... Orain, berriz, ez dakit nungo aizeak eman-da, iturri garbienekoa eta jatorrena utzi eta egaleko euskera bat artu dute euskera guztien batua egiteko...

Esandako onek danak onetara datoz: Bixente euskaldunak, Latiegitarrak, Tolosa "ko semeak, iturburu garbienenan edan duela bere euskera. Eta euskera ori amaren bularretik edoski zuela. Gertakizun onek izugarritzko abantailla eta onura ematen dio gizaki euskaldunari: buruko estrukturak eta moldeak euskaldunak izatea, alegia. Euskeraz pentsa eta euskeraz mintza. Ez dago bien bitartean aldaketarik: pentsa-moldea euskalduna eta orreri dagokion mintzaira ere bai. Eta ori, nekerik gabe lortua amaren magalean...

Bixente 'ri ez zaio ainbeste eta ainbeste euskaldun berriei gertzatzen zaiena gertatzen: erderaz pentsa, alegia, eta euskerazko itzez mintza. Tradutore traditore gertatzen zaie beuren barren, euskerarik menperatzen ez dutelako. Bai, bai, kursillo pilloa daukate egiña; agiriak, berriz, karfera-bete; baiña, irakurri itzatzu oien idaz-lanak eta, begien aurrean erderazko idazkia ez ba 'dezu, lanak izango dituzu euskerazko itzulpenak ulertzen.

Gaurko egunez jende asko bizi da Euskeraren errapetik. Iragarkiak lurralde osoa bete dute bi izkuntzeetan: erderaz eta euskeraz. Ez du iñortxok euskerazkorik irakurriko eta, orregaitik edo, iragarkia ipintzen duanari berdin zaio ulertu-erreza ala ulertu-gaiza izatea. "Legea betetzen da" euskeraz ipiñi ezker; ondo ala gaizki, orrek du nunbait orrelako garrantzirik, legea bete ezkeroztik. "Legea bete", ordea, euskaldunentzat zera esan nai du, legearen azala betetzea, mamirik betetzen ez ba 'da ere.

Gure arteko gerratean nere amuma ete bere lagun Gergori, biak oso gizenak, Lekeitio 'ko ingumarietan zeuden, mendi-bide batean, automobil baten barruan. Gerturatu zaie miliziano-taldetxo bat galdezka:

Qué hacen ustedes aquí, señoras?

Gergori Amoroto 'ko alaba euskalduna zan eta onela diotza nere amumari:

Berba eixu, Pillipa... Eta, Pillipak barbarik bez, esaten zidan andik denboratxu batera.

Pillipak berba egiteko asmorik ez zuela ikustean, bera asi zan:

-Este señora de hijo de auto; no poder ser andar.

Miliziano aien algarak.— Qué dice, señora?

—Fácil, fácil: este señora de, hijo de, auto...

—Aiek mutil tontuak ziran, esaten zidan Gergorik. Ez eben ezer be ulertzen.

Berarentzat arazoa oso garbia zegoen: Andre onen (este señora de) semearen (hijo de)

automobilla (auto): esta señora de, hijo de, auto., Errezago esan ezin. Euskeraz pentsa eta euskeraz itz egin berba erdaldunekin; gaur eguneko zenbait itzultzaileek orixe egiten dute, baiña alderantziz: erderaz pentsa eta erderaz itz egin, berba euskaldunekin...

Latiegi 'ri ez zaio orrelakorik gertatzen, naiz-eta dotoretasuna duen apaiza izan, irakas-kintzan beti ibilli euskeratik at eta izkuntza askoren jabe bere burua egin bere bizian. Oiek danak ez diote euskerarik galdu-arazi, azpiko olfiarriak eta beeko solairua euskera jatorrez egiña duelako. Gaiñera Euskera zaindu du, Euskerari ekin dio eta Euskerazaintzako sortzaille bat ere bada. Liburugintzan lanean ikusten degu etenik gabe eta bien bitartean or ari da su-ta-ke aldizkarietan lanean (ZER eta SASKI-NASKI) eta izparingietan (Diario de Navarra) euskera-arloan...

Euskera, ordea, ez da izan bere ogi-bidea: euskerarentzat bizi ba 'da ere, ez da euskeratik bizi. Gasteiz 'ko Instituto Politécnico 'ren zuzendari izan da urte luzeetan. Beraz, bere lana ez zan euskeraz idaztea ez eta Elizaren Edestia egitea ere. Beste lan askoren artean au ere egin du atsedeen-aldietan, lasai-uneetan... Atsedena lana aldatzea da. Bixentek bere ogibideko eginberrak bete ondoren, lan au osatzea artu zuan atseginbide...

Lagungarriak

Gasteiz 'ko Seminarioan bizi izana degu eta bertako liburutegi ederrean zuan liburu-zerrenda luzea, gai oneri buruzkoa. Liburu onen asieran, bosgarren orrialdetik amargarrene-ko bitartean, dakartzki idazti oiek banan-banan... Sailla, luzea benetan.

Aiek danak eskuetan erabili eta aietatik liburu berri bat ateratzea, orixe bai buru argi eta indartsu batentzat benetako lana... eta gozamina. Buru ergel batentzat, zorabioa.

Joseba Zubikaral Markiñako karmeldarrak langundu dio makiña-utsegiteak zuzentzen.

Denbora eta garaia

Edozein liburuxkaren egilleak esango dizu, itzetik-ortzera, bosteun ordu bear izan ditula idazti-arazoa bere elburua eramateko. Eta gero, berriz, neurri orretan egiten dituzte beuren eskabideak gizarteko elkarteeri.

Zenbat ordu bear izan dituzu edesti-liburu auk bere onera ekartzeko? Erantzuna zuk eman diguzu: ogei urte. Ogei urtez arazoa eskuartean, irakurriz eta oarrak idatziz... Ogei urte zazpi milla eta irureun da bost egun dira... Egunak esaten ari gera eta ez, orduak. Eskerrak ez zenduela lan au ogibidetzat artu...!

Gai oneri buruz ara zer dion liburu onen amaseigarren orrialdean Latxaga ospetsuak:

—"Pozik eta atsegin aundiz irakurri det zure liburua. Ondo oartu naiz zuk ere pozik idatzi dezula; zoriotsu izan zerala ori idazten ari izan zeran denbora guztian; egiatzko gozotasuna izan dela zuretzat eginkizun au".

Eta lana gozo egiten danean, orduan lanaren fuitua eta ondorena ere gozoa izan oi da.

Eliza osoaren edestia gauza zabala da bai tokiz eta bai denboraz. Tokia laburtu ezin, esirik ipiñi ezin, Eliza osoa bait doa aurrera ibilli eta ibilli... Garaia banatu bear.

Eta liburu onen garaiak bi gizaldi osatzen dute: amazapigarren eunkia eta emezortzigarena. Berreun urte mando! "Codex Juris Canonici" egin arte, Elizaren Legediak liburu asko biltzen omen zituen eta, jakintsuen iritzira, "onus multorum camellorum" omen ziran, "kamelu askoren zanpagarritzko pixua" osatzen omen zuten danen artean. Elizaren berreun urte alakoak liburu baten esitzea, ori ere "onues multorum camellorum" iruditzen zait. Amazoniako oianean sartzearen antzeko. Basoa ikaragarria gurdi-bidez eta bidetxigorrez betea eta josia...

Nundik nora jo?

Amazonian urratsen ari diran antzeko bide zabala egin digu Latiegi jaunak: Aita Santutik Aita Santura dijoan bide zabala. Andik aterako dira zearretako gurdi-bide eta bidexkak. Orrela, ez dago arriskurik norbera burua oianean galtzekoa.

Liburuaren gaiakin sartu baiño lenen, beste oartxo bat ere esan bearra daukat. Euskera jatorraren jabe izanik, bere pentsakera eta pentsakera orren itz-moldeak jatorrak izanik, idazkeraren soiñekoa ere jatorra erabiltzen du Bixentek: Euskaltzaindiak irurogeita amabost urte luzeetan erabillitako soiñekoa.

Orain urte gutxi, gazteen iraultza bateri amor emanaz, Euskaltzalndiak, bide zabala utzi, lortuta zegoen batasunari bizkarra eman eta zearkako bidea artu zuan: euskerari buruz, biotzekoa laga eta egalekoa artuz, eta idazkerari buruz naaspilla eta zailtasunak bearrrik gabe sortuz.

Erabiltzen eta aoskatzen ez zan izki edo letra bat tartean sartu zuten belardian karda-azia baiño ugariago, idazkera zaildu eta itsusituz, irarkola galestituz eta berritik ikasi bear duanari eragozpenak duan ipiñiz. Antzututa sekulotan egon dan Euskeraren errapea, gaur aberatsa degu eta esne orrek eraginda, jendeak lanean ekiten du zailtasun eta guzti, gaitzez betetako euskera ori ikasten... Berriro antzutuko ba ' litz, orduan ikusiko genduke euskalzale berri auen adorea noraiñokoa dan.

Izki berria naikoa ez dala, zaarrak kendu dituzte Ñ, LL eta J eta edonoiz entzungo dezute lan-gi-lea esaten, langillea esan bearrean... Jota erditik kendu ezkeror or dabilta axolakeriak esaten eta bitartean dijoo aditza idatzi ezin eta orretarako h 'a jota 'ren ordez dihoa eta aoskatzen ez dan izkia, emen jota bezela aoskatu bear... Oraingo egoerak negar-gura ematen diola, esan zigun joandan astean D. Manuel Lekuonak telebistatik...

Liburu onetan orrelako zailtasunekin ez dezu topo egingo. Euskera bera erreza eta jatorra eta idazkera ere berdin: gain-soiñekoa, alegia, tolesterik gabea.

Kanpotik ere ondo egiña dago liburua, paper onez eratu eta moldetegiko lana, bera ere, garbia eta errez irakurtzekoa. Orriak, berriz, lokarriz josiak eta onek asko esan nai du, askotan pegamentuz erazten bait dira alkarri.

Gauza bat du eskasa: azala. Liburu onek jantzi dotoreagoa merezi luke. Akatsik aundiena orixe duela uste dut. Irarkolako utsak ere baditu; baiña oietik idatzi bat libratzea, batez ere euskeraz bal dago, oso da gaitza eta zailla.

Gaia

ELIZ-EDESTI-SORTA onen gaia, denbora aldetik, bi milla urteko Eleizaren kondaira dezu eta, toki aldetik, mundu zabala. Denbora aldetik mugatu bear eta orrela edesti onen lenengo

alea XVI 'garren gizalditik argitaratzen asiak gera, naiz-eta gertaerak aurretik etorri: Erdi-arotik, alegia.

Erdi-aroak moldaketa luzea izan zuan, bein Erri basatiek, Erromako Erresuma apurtuta, laterri berri-gazteak sortu zituztenetik aurrera. Oiek danak eta urrerakoak, gerora argitaratuko dira.

.

EDESTI onen lenengo alea joandan urtean San Iñaziorekin elkartuta etorri zan, onek eta bere Konpañiak garai aietan izandako garrantziagaitik. Iñigo, berriz, gurea da, gain-gaieneko euskalduna.

Erri basatien artean Elizak begirunea eta aginpidea bazuan, jakintza eta buruko argitasuna berekin zuelako. Jakintza Eleizaren eskuetan izanik, onek gizartea bere gixara eratzen saiatu zan, Jainkoa ipiñizjakintza guztien gai. Ikastola Nagusietan, Unibersitateetan, teologia erakusten zan gairik nagusien bezala.

Jakintzarekin batera agintaritza ere Elizaren eskuetan zegoen; Aita Santuenean batez ere, baña baita Gotzaienetan ere. Gotzaia, "pontifex" zan: "zubi-egille", alegia eta Aita Santua, "pontifex maximus" .. Orrek esan nai du jakintzarekin batera, bazutela dirua ere eta agintaritza.

Gizadia aurrera doan neurrian, sekularrek beuroen adiñera eldu ala, Elizaren menpetik beuren buruak askatzeko irrika zeuden eta ortik sortzen zaie Elizaren aurreko garaietara begiratzeko gogo: Erroma eta Greziako jakintzara eta artegintzara, jentillen bizi-moldera, alegia. Baita Eleiza beronen lenengo egunetara ere. Orixe dezu Renacimiento edo Birsortzea.

Elizaren menpetik beuren buruak libratzeko giro orretan, jaso zuan Luterok bere askatasun-ikurriña. Elizaren aginpideetik libratzeko, errege eta printzipean gan ipiñi zuan aginpidea eta orretarako beuren errien Aita Santu eta Gotzai izendatu zitun. Ortik sortuko da erregean absolutismoa eta Estaduaren eliza. Beste aginpiderik ez du Luterok ezagutuko Bibliarena ez ba 'da; baiña, Biblia ori bakoitzak bere erara argituko du.

Biblia orrela irakurtzeetik eta erregeen eliz-aginpideetik izugarrizko zatiteketa sortu zan Kristiandadean. Zatiketa orretatik, berriz, Elizaren eta Bibliaren mesprezioa...

Zatiketa burrukaz beteta zetorren. Nundik pakea lortu? Nundik batasunera eldu? Emendik artzen du asiera orain aurkesten ari geran Sortaren bigarren liburu onek.

Lenengo Inglaterran eta gerorago Holandan arrazoiaren aldeko kanpaiña sortzen da pakearen eta batasunaren oiñarri bezala. Fedearen orde, arrazoa: giza-arrazoa. Jainkoaren orde, Izadia beronen legediarekin. Jainkoa, baldin ba 'da ere, ez du Izadiaren ardurarik.

Sustrai auetatik sortzen da Argikuntza edo Ilustrazioa.

Onen ondoren Deismoa dator Izadia berbera da jainko.

Deismotik Ateismora: ez da jainkorik.

Jainkoa jakintza-bideetatik kendu eta bere orde Izadia ipiñi eta Izadiaren lege guztiak. Oiek dira Jakintza Barriak.

Fede berri au kristau-fedearen aurka jarriko da; naiz-eta berez aurka egon ez. Argikuntza-aren argi berri onek salbutuko du gizadia, erriak parce arteke. Orixe izango da despotismo

ilustrado deritzan zera. Illunbeetan dagoen erri itsua argidunek salbatuko dute. Iraultza onek despotismo dakar alde guztietatik, erregeen indarkeria indartuz.

Argi ori zabaltzen ari dan neurrian, erriko jende asko onetan konturatzen da: argiak salbatuko ba 'ditu ez dutela errege bearrrik beuren buruak salbatzeko eta ortik sortuko da iraultza berri bat: Frantzia'ko Iraultza. Giza-arrazoia bera da jainko. Erregearekin batera aundikiak eta eliza kendu gizartetik eta burgesak jaso aginpidera...

Bi gizaldi luzeeko edestia da eta bitartean Elizak zer jokabide duen ikusteko Latiegik, lenago esan degun bezala, bide zabal bat urratu digu Aita Santutik Aita Santura eta ortik irte-ten dute zenbait bidezear bi gizaldi oietan Elizan bertan izan diran ezbiderazioak ezagutzeko: Jansenikeria, Galikeria, Febronikeria, Josepekeria eta abarren okerkeriak; baita masolenak ere...

Garai naasi eta urduriak, gaur eguneko zenbait okerren sortzaille eta sustrai; baiña, garai auen eta aurrekoen berri beste iru liburuetan agintzen dizkigu Latiegi jaunak.

Eta, bukatzeko, ona berriro Latxaga'ren itzak:

"Lan ederra egin dezu; bikaiña; argiñen lana. Arriz-arri arreta aundiz, poliki eta dotore landutako arriz egiña; mamiz eta azalez lan bizi-egokia".

Artu liburua eta ao-gozatu patxara onean. Onenbestez aski dugu. Esaera zaarrak dionez: "gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan artu".

Anes ARRINDA



"BETIKO" TA "BETIRAKO"RI BURUZ ZEOZER

Orain illabete batzuz "ZER" aldizkarian "Memaia" izenordea darabilen idazle jatorrak, golan aipaturiko esaera bi orreiri buruz, zeozer idatzi eban, eta gaia zudugarria edo interesgarria deritxadan ezker, nire aldetik zeozer esan gura izango neuke. Gitxi gora-beera auxe idazten eban "Memaia" k:

Batzar baten, iñon eta iñoiz entzun ez eban berbea entzun eutsala izlari bateri, eta auxe alegia: "betirako" \$ "para siempre". Batzarraren ostean, zelan esango leuke "para siempre" dalako izlariari itaundu eutsan, eta onek: "betiko" berbea erabilliko leukela erantzun eutsan.

—Zelan esan dozu ba, birritan "betirako"...? - Memalak'k.

—Liburuak ipinten yok - izlariak.

Memaia k diño gero, "betirako" berbea, Azkue 'k iñoiz ez entzuniko "solecismo" tzat daukala, Mendiburu'k eta Lizarraga'k erabilli arren.

Jarraian, Memaia 'k eskatzen dau Bizkai 'ko erriren baten norbaitek "betirako" itza entzun ba' leu "ZER" aldizkarian jakiñerazoteko.

Nire ustez erriak "betiko" itza baiño ez dau besterik erabilten. Baiña...

Argi dago niretzat, erriak "betiko" berbaz esangura ezbardin bi adierazoten dauzala, eta nire ustez ori ez da egokia. Idazle batek euskera jatorra erabilli bear dau, baita euskera zeatz eta ulerterraza be. Euskera jatorra ta ulerterraza ez danak, gogait-eragiten dau edozein irakurle, eta au dala-ta, aalegindu gaitzen idazleok baldintza bi orreik ondo beteten, eta gauza ezbaridiñak berba edo esaera ezbaridiñak eskatzen dabezan ezker, saiatu gaitzean gure izkuntzari doitasun ori emoten.

"Jaungoikoa betiko do" idazten edo esaten dogunean, gauza ezbardin bi adierazo dagikeguz:

Bata: Beti lez dala, aldakuntzarik ez dauala.

Bestea: Amaitzerik ez dauala, beti iraungo dauala.

Arazoa, beraz, bear dan lez zeazteko, lenengo esaera adierazo gura ba' dogu, au da, beti lez dala, aldakuntzarik ez dauala, nik "Jaungoikoa betikoa do" idatziko neuke. Baiña bigarren zentzua emon gura izango ba neuskio, au da, sekulan iraungo dauala orduan "Jaungoikoa betirakoa do" idatziko neuke.

Eta bardin,

"Zure lelo ori betikoa do" idatziko neuke, beti gauza bardiña diñozula adierazoteko.

Eta,

"Zure lelo ori betirakoa da" ipiñiko neuke, zeuk diñozun ori sekula ba beti entzungo dala, adierazo nal izatekotan.

Barrero be auxe esango neuke: irakurle gitxi dogu, zoritxarrez, eta ugaritu daitezen, irakurgai jatorrak eta ulerterrazak erabilli bear doguz idazleok. Elederreko euskerea osotu barik dago, eta au egunik-egun idazleek etxe baten antzera eraikiko dabe, doguzan erri euskerak erabilliz, baita aldakuntza txikiak sortuz be, esan-naiaren doitasunak olan eskatzen dauanean.

LIBURUGINTZA

Asko idazten da gaur, egunkari ta aldizkarietan, luzeta labur. Baiña nik emen, gaia estuago artuz, liburu bat osotu nai dot, olerkariak poesi bat legez. Soloan lan dagianari nekazari edo lugiña esaten dautsagu, eta beronen lanari "lugintza". Era berean, liburuak idazten edo osotzen diarduanari, "liburugintzan" dabillega esan bearko.

Aurtengo "Korrika" eguna Zornotza 'n ospatu zan; Larra inguruan izan zan zaratarik nai-koa. Jente asko ibiltan eta ikusketak ez gitxi. Onetariko bat gure komentu ate aurrean: gipuzkoar bat zan lan eta eragoioa. Zer lan gero? Antxiña, ez Otxandio 'n bakarrik, euskal erri osoan be, mota askotako kateak egiten ziran, baiña burdiñanezkoak; onek, ostera zurezkoak egiten ziarduan. Jente asko berari begira, lor ta lor. Arrigarri egiten jaken arena. Kategintza.

Argintza, etxegintza, ikazgintza... Eta liburugintza: ba-dakizu zuk liburu bat zer dan, eskolara joaten asi ziñanetik. Gaur zenbat liburu daroezan umetxoak eskolara edo ikastolara doazanean, besapean, zorrotxoan...!

Eta zuk ba eta dakizu zelan egiten diran liburuak? Ormak arriakaz, etxeak arri-zementu ta burdiñez, ikaztoiak egur xeetuz, kateak burdiñez eta agaz. Eta liburuak? Itxura emon, irarri, josi, azala ezarri ta gaiñerako zerak irarkolan (inprentan) egiten dabez. Baiña zegaz? Nun dago gaia? Ori idazlearena dozu. Liburuan jarten dana, gizasemeak naiz emakumeak, bere buruaz sortzen dauana da. Gaia ondo pentsatu, ideiak garbi, esakunak zorrotz, eta letrak be ez edozelan, zutik baiño. Tarte banaka edo bika makiñaz batez be idatzi ta etxe argitaldariari eroan ol jako.

Aldez aurretik egin beizuz argitaratzeagaitik zenbat ordaindu bearko dozun, zenbat liburu izango diran, zelako papera, letra aundi naiz txikia eta abar. Eta zuk onartzen dozu edo dozu onartzen arek ekarri dautzun presupuestoa. Ak egindako aurre-kontua onartzen ba 'dozu, ak beingoan asten dautzu bere lana, eta aurretik berbaz naiz idatziz burutu dozuen itun-epe barruan egiña izango dozu liburu. Baldintza edo kondiziño au beteko ez ba 'leu, zuk zigortu zeinke irarkola-arduradun, aurre-kontutik zerbait jatxiaz edo.

Liburu osotu bitartean, lenengo galeradak bialdu dautzuz, zuk ikusi eta utsik balitz, arteztu dagizun; bi edo iru bider bialduko dautzuz uts-izpirik be arakatu ta zuzendu barik geratu ez dedin. Argazki edo marrazkirik ba 'lego, bego bakotxa bere lekuan, ez gorago ez beerago, artez eta dirdaitu baiño. Bai idazleak eta bai argitaratzaileak, arduraz ta ganoraz jokatu bear leukie emen, liburu dotore ta begi-betegarri agertu daiten.

Nik, andi ta txiki, 47 bat liburu daukadaz, neuk argitaratuak, eta eundaka artikulu ango ta emengo aldizkarietan argitara emonda; orreik guztiok eraz eta ondo ipiñi bear izan ditut, uts gogaikarririk agertu ez eiten. Orrek beti dakartzu zeregiña, ardurea. Guzti au, baiña, poz-ekarie be ba-dozu, eta pozik egiten danak ez dautzu orrenbeste neke ekarten. Duban egiten dira gauzok, eta onexek dira sarri poztasun biziarena emoten dautzuenak.

GERNIKA deritxona dozu nire azken liburu. Aurtan, Gernika bonbaz austu ebenetik 50'garren urte-muga dala-ta, osotua dot liburu au. Eta emen dozu liburugintza. Azaletik ikusi dogu. Eta gaia? Idazlearen lana?

Begira zelan osotu dodan nik GERNIKA. An, illabete batzuk dirala, otsaillaren asikeran, iru gazte gernikar etorri jatazan, poesi batzuk, Gernika 'ri buruzko idatzi batzuk, gai batzuk nai

ebezela-ta. Zer-edo-zer gertatu gura eben urte-muga ortarako. Nik, ostera, ezetzik ezin emon gazte arei. Baikor, gazte, maitekor ziran, eta... Zelan uko egingo? Apurka apurka areik eska-tua batu ta metatzen asi nintzan, gogo onez asi be.

Laster neukan euki be pillo ederra Gernika 'ri begira egindako lanez 1937 'garreneko erretea izugarria izan zan, izan be, neuk be, naizta Bizkargi ertzetik, neure begi blakaz ikusi ta sentidua. Eta nik gazte arein guraria bete ondoren, zer egin neban gai-meta aregaz?

Pentsa ta pentsa pare bat egun erre ondoren, pillotu nebazan egur, abar, au da, gai guzti areikaz liburu barri bat osotu bear nebala, buruak emon eustan. Eta olantxe egiña da esku artean daukazun (edo euki bear zeunken) GERNIKA idaztia, 158 orrialdekoa.

Iru zatitan bananduta dago liburua: 1) Gernika zoragarri; 2) Gernika erraustua, eta 3) Gernika kontuz goratua.

Ona: Lenegoari dagokionez, berrogetamar urte dirala, doixtar goi-airekoak kiskali eben Gernika, euskaldunon uri santu maitea. Gaizkilleak guzurra zabaldu eben ondoren, geuk euskaldunok erre genduala Gernika; baiña egiak, naizta astiro, bidea egiten. Bizi da Gernika, len ederra ba 'zan, gaur ederrago.

Nik lengoa dakart gogora batez be, gai ugari oneikaz: Itz-erroa, Izkuntza, Kultur jaiak, Periak eta azokak, Musikalariak, Gernika istorian zear, Gernikako Merendidaea, Batzar-etxea, Batzarraren ospakizuna, zer diran foruak eta legeak, Jaun Zuria, Gatzaren auzia, Gure Ikurriña, Arbola zaarra, JA. Agirre 'ren zin-egitea, Juan Karlos Erregea, Garaikoetxea ta Ardantza Gernika 'n, Gernika gogoratuz...

Bigarren zatia au dator: Gernika kiskalia, Uri baketsua, Gaizkillearen errea, Ikusiak diardu kontatzen, Lenengo bonbak, Negarra ta intziria, Gabaz Gernika 'n, Illak eta zaurituak batzen, Testigantza batzuk: On Alberto Onaindia, Jose Labauria, Agirre Lendakaria, R.C. Stevenson, Hugh Thomas, Nik ikusitakoa, "Lauaxeta" preso, Picasso eta Gernika-Lumo 'ren agiria mun-duari bera zuzitua izan zan 50-garren urte-urrenean.

Eta irugarrenean olerkariak kantatzen dabe Gernika. Lengoak eta oraingoak. Ikus: J.M. Iparragirre 'k (Gernikako Arbola), Arrese-Beitia "k (Arbola bat, Gernikako Arboleari, Gure Arbola gazteari, Gure Aretxaren kerizpea), K. Etxegarai k (Gernikako Aritzari), Kepa Enbeita 'k (Gernika), Jel-Orde 'k (J .M . Leizaola), (Gernika apurtua), Aita Onaindia 'k (Gernika sutan), X. Iratzeder 'k (Gernika!), Basarri 'k (Gernika puskatua), Luis Baraiazarra 'k (Gernikako Arbola), Lauaxeta 'k (Agur, Euzkadi), W. Wordswoth 'ek (The oak of Gernika), Gordobel ek (Emen dago), "Gernika" 1950,X.Jean Diharce 'ek (Haitz-pean), Eusebio Erkiaga 'k (Amaren itzala), Nemeslo Etxaniz 'ek (Gernika), Txoti Txiki k (Agur,Gernika),Adolfo Larrañaga 'k (Gernika), Adolfo Larrañaga 'k (Gernikako su-garrak), Blas de Otero 'k (Gernika), Gabriel Zelala 'k (Gernikako Arbola) eta Migel Unamuno 'k (Agur, Arbola bedeinkatube).

Auxe da nik oraintsu egindako liburu barriaren gai ta auzia .Gernika bakez egoan astelen batez egazkin pillo aundiz suntsitua izan zan, bertan bape errazoi barik ainbat eriotza egiñik. Garai aretan, egia, gudu gorrla zan orruka. Baiña ori zala-ta uri baketsua olan erre! Noraiño jausi dan gizona! Eta zelan nastatu oi diran gauzak! Len eta orain zelako ziztu ta abiadaz dabillen guzurra!

Etsalaren summa aserik, "Euzkotarren uri agurgarriaren erraustea egiña zan. Baiña —idatzi eban J A.Agirre 'k— Gernikako Zugatzak, askatasun ikurra dogun Artizak, bere abar orritsuak garez gorrituriko ortziruntz jasorik ebazala, osorik, lkerarik egiteke, tente irauan, askatasun alde, euskotarrak eundakaz euren bizia opaldu bear izanarren, berak ikurtzen dauzan egiak ez dirala egundo aldatu ez igaro egingo, gizadiari iragarri nai izan bai leutsen ".

Orduan lez gaur be, askatasuna ta bakea, ez da besterik guk opa doguna. Nik bereziki "GERNIKA" liburuaren bidez.

Aita ONAINDIA

IZAN DU ALA EDUN DU?

I ZAN esaten dugun batzuetan EDUN idazten dudalako ezagun batek ori zergatik egiten dudan galdetu dit. Beste batek berriz EDUN idazki zaarretan beiñ ere agertzen ote dan jakin nai duala. Ona beraz ontaz dakidana.

Euskalkirikr geienetan gauza arrigarri bat gertatu da: "izan da" eta "izan du" esaten dugula. Erronkari "izan da" eta "ekun du" esaten zan, manex-euskeraz alde askotan "izan da" eta "ukhan du" (edo ukhen du), ziberutarrez "izan da" eta "Vkhan dv" (edo vhken dv). Emen "V" letraz prantzesez eta nederlanderaz "u" letraz, alemanez "u" letraz adirazten dan "u" eta "i" otsen artekoa adirazten dut.

Baiña basanabarreraz ere "izan du" zabaltzen ari dala esango nuke. Aita Lhande 'ren iztegian onakook dagode: "garaitu zaitu, baina izan du lanik asko"; "iz⁹ ndun zarela othoi erakutsazu"; bietan "izan" aditza "ukan 'en" ordeaz dago, baiña ori aldrebekeri aundia dugu.

Egin dezagun onakoau esaten dugula: "Etxe baten jabe izatea ezta aberats izatea". Erderaz onela esango genuke: gaztelaniz "el ser dueño de una casa no es ser rico"; prantzesez "etre maitre d'une maison n'est pas etre riche". Iruretan berdiñ esaten da: "izan, ser, etre". Baiña gauza bera bestela ere esan genezake: "etxe bat izatea ezta aberats izatea", "tener (haber) una casa no es ser rico, "avoir une maison n'est pas etre riche"; beraz erderaz batek haber (tener), avoir, eta bestetik ser, etre, euskeraz berriz bietan izan .Au aldrebekeri aundia dala esan dut, eta izan ere ori erderaz bestela aditu liteke: ser una casa, etre una maison, etxe bat izan. Orregatik etxe bat ukan askoz ere egokiago esana dago. Baiña ukan aditzaren jokaerak euki (eduki) aditzarenak lirake, (daubat, daukagu eta abarr) eta orregatik uban eztugu erremedio txit egokia, orrek ere izan 'ek bezelaxe du, dugu jokaeraeri eztagokiel⁹. Ori dala -tajakitun batzu palta dugun aditz-izen ori edun izan zitekeala esaten aspaldi asi ziran. Mitxelena jaunak dionez edun itzetik sortuak euki (eduki) eta ukan (edukan).

Bizkaieraz oraiñ geienetan euki erabiltzen da, baiña beste euskaldunontzat garbi dago dauka eta du bi gauza dirala, eta bi oiek naastea gaztelaniz ere la beti haber ordeaz tener naastea bezelaxe da: "tiene dos hijos" guk be seme ditu esaten dugu, bizkaieraz bi seme daukaz. Gu onela bereizten oiturik gagode: LGuraizerik ba-al-duzu? Baditut, baiña eztauzkat emen. Badu gauza bat da badauka beste bat. Badu edun 'i dagokio, badauka berriz eduki iri. Orra beraz nola litzaken jatorr esanik leen aipatu dudana: "Etxe bat edutea ezta aberats izatea". Goraizeak edukitzea lapurr izatea ere gerta liteke.

EDUN aditz-izenaren bearra adirazi dut; idazki zaarretan agertzen ote-dan ikustea dugu bigarren lana. Asko EDUN itza izartxo bateki 'n idatzi bear dala uste dute, alegia susmatu -tako itza dala. Baiña egia bestela da.

Gernika 'ko batzarr-etxean dagon pintura bat beste bi orren berdiñak dira lenengoz eza-gutu nituan sinisgarriak. Oietako batek onela dio: "Au da nola milla ta lareun ta yruogueta-maseiurfeetan garagarrillen amargaren egun erregue jaun Fernando bostgarrena guer-nicaco arecharen bean biscaitarrai confirmadu eguiaesan euren foruacta eurac bera jaun -tzat edutea".

Bi pinturretan ecutea dio, bestean edutea. Ongi dagoana irugarren au dala ikusteko aski dugu oraiñ aipatuko ditudanak gogoratzea: edun 'dik eun ateratzea errez baita (gg. euki), baiña ekun itzaren k galtzea benetan arrigarri litzake. Ona beraz orain beste idazki zaarretan noiz agertzen dan.

Oihanarte 'ren esku-letrazko esaera zaarretan: (Larresoro 'ren agertzaldian, 821; Mitxelena 'ren Textos arcaicos vascos, 175 a) "Garrastu adi ikasterren, ta neska adi euterren": soufre pour apprendre, et travaille pour avoir.

Refranes y Sentencias 501: Zeegik gatzik tan zeeuk bildurrik: No hagas dario y no tengas miedo. Emen zeeuk-ezeuk-ez, eduk.

Kapanaga ren Dotriñan : P . Noc egu in eban Credo. R .Apostoluac, P .Zetaco R . Fedea ere-custeco. P. Eta guc zegaitic esaten dogu. R. Fedeau confessetaco eta onetan indar gueiago euteco. (25a) P. Eta mansedumbrea zerda. R Vengaien desseoric ez eutea (74a).

Euskaltzaindian banatu ziguden paper batean:

Atseyn andia da amore eutea, eta bere bada guztiz firmea.

Axularr "en "Gero" liburu sonatuan (Aita Villasante 'ren agertzaldia aipatzen dut): gora -turik eta bortxaturik dadutzazu bertzeren onak (331 a); Hauri da erremedio ona..., itsutua eta beretakotua zadutzan emaztearen uzteko (481a); ...ordea hargatik begiek ezertan dadutzate iñok... (414a). Iru oietan nik edun ikusten dut. Beste oetan edonork lezake. Ordea berehala Erregek berak sosega arazi zituen, erraiten zuela: Non me respexit. Euzue bakea, ezta bidegaberik egin (411) Halakoagaitik erraiten du San Agustinek: Semper doleat, et de dolore gaudeat. Beu bethi dolore, eta doloreaz gozo, eta zaphore (688a) Eduzue eta bedu (edun beza) garbi dagode or, leen aipatu dudan zeeduk bezelakoxeak dira.

Orra beraz edun dut eta eduten nuan idazteko nere arrazoiak.

ZATARAIN ' dar Anbrosi

GOGORATU BEARREKOAK

Eta egiz, geren asabakin ertsien, estuen, obekien lotzen gaituan lotzaiki ta txibista euskera da. (R.M. Azkue)

Euskerari lotsa galtzea, gure aurretiko gizaldi guziei lotsa galtzea bezenbat da. (R.M. Azkue).

Erabili ezkerro, izkuntza ezin il diteke; erabili ezik, ordea, eriotzaren atzaparretan dago. (R.M. Azkue).

Gauza batzuetan erriak beraren maisuak baiño geiago daki. (R.M. Azkue).

Txori bakoitzak bere abestia,
Erri bakoitzak bere izkera,
eta euskaldunok Euskera.
(Elbire Zipitria Andereñoa).

Zatozkida, Go;-arnas, eizu nerekin lan,
erri baten arnasa momitu dezadan.
Geroak esan beza: Erri bat izan zan
edo-ta ats emaiogun ontan iraun dezan.
(Orixe).



"Elbire Andereñoa" Olerki - Sariketa

Zipitria ta Irastortza'tar Elbire, Andereño ezitzaille bitxiak, garrantzi berezia ematen zien olerkiei nexka-mutikoen eziketa-bidean. Aren eziketa-bideari jarraipena emateko asmoz, OLERKI-SARIKETA bat eratu du EUSKERAZAINTZA'k, ain zuzen ere aren oroitzapenerako ta aren izena emanez.

OIÑARRIAK EDO BETE BEARREKO ARAUAK

- 1'go: UMEENTZAKO OLERKIAK izango dira, edonork egiñak diralarik.
- 2'gn: GAIA: Umeentzat egoki dan edozein gai, euskal-girokoa noski, euskalsena zuzperten lagunduko dien erakoa.
- 3'gn: Umeek, adiñaren eta ikasketa-maillaren arauera, buruz ikasirik, antzetzeko naiz abesteko eran landuak izan bear dute olerkiek.
- 4'gn: Luzera: gutxienez, 40 lerro ta geienera 60 lerro, tartea utzita.
- 5'gn: Epea 1988'go urtarrillaren 31'gna izango da azken-eguna.
- 6'gn: Sariak: Lau izango dira, Lenengoarentzat, 40.000 pezta.
Bigarrenarentzat, 30.000 pezta.
Irugarrenarentzat, 25.000 pezta.
Laugarrenarentzat, 20.000 pezta.
- 7'gn: EUSKERAZAINTZA'k bere esku izango du epai-maikoak izendatzea.
- 8'gn: Epai-maiaren esku izango da sariren bat edo beste utsik uztea.
- 9'gn: Jakiñeko gauza danez, norberak sortu bear ditu olerkiak, ez bai-dute sariketarako baliorik ez euskeratuek, ez leendik argitaratuek:
- 10'gn: Oi danez, alda-ezin izango dira epai-maiaren erabakiak.
- 11'gn: Olerki sarituak argitaratzea, Euskerazaintza'k bere esku izango du. Eta bi urteren buruan argitaratu ezik, ostera egilleen esku izango dira.
- 12'gn: Sari auetarako diru-laguntza, «Donostiako **Aurrezki-Kutxa Munizipala**» ezagunak ipiñia izango da.

Lanak bidaltzeko elbidea: "EUSKE

GAZTETXOENTZAT

"Elbire Andereñoa" Ipuin-Sariketa

Ume ta gatzetxoentzat guztiz aberasgarri danez ipuiñak sortzea, «ELBIRE ANDEREÑO» izeneko IPUIN-SARIKETA bat eratu du EUSKERAZAINTZA'k, IRU maillatan eratu ere.

OIÑARRIAK EDO BETE BEARREKO ARAUAK

1'go: GAIA: bakoitzaren aukeran izango da gaia, baiña norberak asmatua ta ez beste izkuntzetatik euskeratu, ez leen argitaratua, eta aal dan neurrian euskal-girokoa.

2'gn: Eskuz idatzirik aurkeztuko dituzte, baiña **izki argiz eta garbiz idatzita, lerrotik lerrora tarte ona emanda.**

3'gn: IRU MAILLA IZANGO DIRA:

A - Mailla: 16 urte baiño geiago ez.

Luzera: 4-6 orrialde.

Sariak: 1'goa: 15.000 pezta
2'gna: 10.000
3'gna: 8.000 »
4'gna: 4.000 »

B - Mailla: 14 urte baiño geiago ez.

Luzera: 3-4 orrialde.

Sariak: 1'goa: 10.000 pezta
2'gna: 8.000 »
3'gna: 6.000 »
4'gna: 4.000 »

D mailla: 12 urte baiño geiago ez.

Sariak: 1'goa: 8.000 pezta
2'gna: 6.000
3'gna: 4.000 »
4'gna: 2.000 »

4'gn: Epea: 1988'go urtarrillaren 31'gna izango da azken-eguna.

5'gn: EUSKERAZAINTZA'k bere esku izango du epai-maia izendatzea.

6'gn: Epai-maiaren esku izango da sariren bat edo beste utsik uztea.

7'gn: Oi danez, epai-maiaren erabakiak, alda-eziñak izango dira.

8'gn: Ipuin sarituak argitaratzea, Euskerazaintza'k bere esku izango du. Eta bi urteren buruan argitaratu ezik, ostera egilleen esku izango dira.

9'gn: Sari auetarako diru-laguntza, Donostiako **Aurrezki-Kutxa Municipal** ezagunak ipiñia izango da.

Añin auetakoan lanak oso erraz gerta daitezke zaarragoen eskuz landuta aurkeztuak. Orregatik, azken-erabakia eman aurretik, alaxoxe zeaztabideren bat eratuko du epai-maiak.

11'gn: Asmamena ta ipuin-egitura ez-ezik, besteak beste, euskerarik bizien eta aberatsena izango da sarigarri.

- Getaria, 21 - 2005 - Donostia

aNTZA"

Euskerazaintza'k 1987'go irailaren Pean

Gure omenduak

ETXANIZ tar NEMESIO

(Azkoiti ko omenaldian esango diran itzaldiak, beste zenbaki baten agertuko dira. Gaur gure lankide baten lantxo au argitaratzen da, bere orolpen eta gorasarrez).

Azkoiti eta Euskerazaintzak egunotan omenduko dabe On Nemesio.
Apaiz jator, egizale sutsu, euskalzale kezkatu, idazle argi eta ainbat "titulu" edo duintasun, danak borondatezko, baiña gizabideko bere ekintza ugarien bidez eta eragiñez lortuak.

Luma zorrotz eta akularia berea. Lekuko: gobernadore, gotzai eta zela-ala erriari zuzenbidea erakustera beartuak, ortarako nortasundunak.

Jaiotez lengo gizaldiko zan; bizi eta eragiñez, oraingo; asmo eta ametsez muga gabeko denporetako.

On Nemesio 'ren kezka, bizi izan giñan negualdi luzeta gorri baten, euskerari bere udaberria billatu eta aurreratu naia izan zan. Konturatu barik erderatzen giñoiazala igarten eban berak. Zelan eten bide ori?

Asmotxa zan, irudipen argi eta ikuspegi luzeko. Eta gitxi lakoa kantu arin eta modakoei esanaldi bizi eta jatorrak egokitzen. Oiturazko moldeak alboratu eta tango, rumba, pasadoble, habanera ta orrelakoei itz gozo, eztitsu, maitemintsu eta zirikalariak ipinten asi zan, beste doiñu batzuei akulua sartuaz biztu eragiten.

Modan jarri zitun ainbat abesti eta doiñu. Ori izan zan bere atsegiñetako lorpen bat. Gogoratzen?

Astigarraga ko Tomasa
eman dizkigu azak!
Lau mutil dabilta

nexka orren ondoren,
ta bakoitzari eman dio
maitasun laurden.

Edo ta "Txa, txa, txa, gure neska motxa"rena.

Nun da gure neska motxa,
zintzilik bere mototxa?

Argi du begi zorrotza,
pozik dakar gaur hiotza.

Umoretzu, sakon eta zentzu andikoa baita alako rumba a:

Ai, Peru!

Ai Peru,

Alabak ez dira aingeru.

laster naiz txiruliruliru,

Ai, Peru...

ez alaba ta ez diru.

mutillak dituzte inguru.

Edo ta Andoni ta Irune ondarrutar bikote gazteak ia Euskalerrri guztian zabaldu eben beste kantu jolasgarri a:

Antoni, Antoni!

Ai Anton! Ai Anton!

Kalabaza zale ez naiz ni!

Aza preskuari, gabon.

Ezin ukatu on Nemesio'k gazteak kantari ipini ba zitun be, adiñekoak bitsetan igarteko zoria lortu ebanik. Azken baten euskeraz barre ta irri egiteko eskubidea gendun ta gure illunpea eten egin bear zan.

Orretan Etxaniz apaiza mezulari ona izan genduan, bere aurretikoen esaera indartuaz: "Euskerak burua jasotzea Jaungoikoak berak nai du".

A. Z.



ETXANIZ-tar NEMESIO
apaiz euskalzalea,
olerkari, musikari
ta antzerti idazlea,
ETXE ONETAN
1899-XII-19'an
jaio zan,
Donostia 'n 1982-I-28'an
ii zan.

1987-XI-28 'an
Jaioterriko omenaldia
Udalak eta Euskerazaintzak.

(Etxeko ormarrian.)

OMENALDIKO EGITARAUA:

11 'tan. MEZA abestua.

12 'tan. OROITARRIA agertzea jaiotetxean eta MUSIKA TALDEAREN entzunaldia.

12,45 'tan. UDALETXEAN, omenaldiko ITZALDIAK, Santi Onaindia, Martin Olazar eta
Karmel Iturria jaunak izlari.

Jarraian: AZKOITI 'KO ABESBATZEN abestiak.

Ondoren: Lagun arteko BAZKARIA.

(Azkoiti 'n, 1987-XI-28'an).

On NEMESIO ren autorpenak:

"Ni, euskera /anean, oneraiño e/du naiz. Zuek, ortik, aurrera joka zazue bikain, gure izkuntzaren burruka irabazi arte".

"Gure biziak egun gorriak ikusi ditu. Euskal-miñak, ala ere, gure nekea jasotzen eta gure 'llunpenak urratzen erakutsi digu. Gure erriaren burrukak eman dio gure biziari bere argi ta lanerako akulua. Ondorengoak jasoko al dute noiz-bait gure lanaren frutua".

"Gure bizitza osoan, euska/miñez jota ibili gera lanean. Gure amesak beti alde batera jotzen zuten: gure izkuntzari bide barriak urratu nai izan dizkiogu. Eta ortan joan zaizkigu gure egunik onenak"